

**San Joan,
nekez etorri,
erraz joan**



Antzizar kiroldegia



BEASAINO UDALA




Goierriko zirkuitua



Behekoetxehaudialdea, z/g

© 943 16 08 62 - 943 16 25 12 ©

OLABERRIA



ZATOZ...


ETA GOZATU GUREKIN



VENTANAS SAN MIGUEL

Mendeurren etorbidea, 2
(Sarrera Nafarroa etorbidetik)
Tl. 88 91 53 Beasain

*Zure ongizatea
babezteko gande*



VENTANAS
SAN MIGUEL

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTETAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKO ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierriarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Agider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Gabino Murua, Edurne Albizu,
Aitziber Murua, Josuna Amondarain,
Nagore Goiburua, Joxepa
Madariaga eta Amagoia Murua-
mendiaraz.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Ona grafikak
(Artika - Nafarroa)

Tirada: 7.100 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Turismo Informazio gune
mugikorra eta Begiratokien
ibilbidea, inauguratuak**

Orain dela lau urte egin zen 'Goierri 2005 urterako Egitasmo Estrategikoa eta Prospektiboa' oinarri harturik, eskualdean, turismoa garatzeko pausoak emanez jarraitzen du Goiekik. Honela, ekainaren 15ean, bi produktu berri inauguratu zituen. Batetik, Turismo Informazio gunea. Berezia izango da, mugikorra baita. Euskal Herriko eta Estatu-ko azoka eta festetan Goierriren informazioa zabalduko du. Mugikorra izatearen arrazoiak zera da: 18 herriren arten kokapenaren inguruan liskarrik ez sortzearena hain zuzen ere. Era berean, bezeroarengan zuzenean iritsi nahi da.

Bestetik, Begiratokien Ibilbideari dagokionez, bisitariak eskualdera erakar-

tzeko baliabiderik erakargarrienetarikoa bat paisaia dela kontutan harturik, berau dastatzeko emango duten 6 seinaleztapen puntu jarri dira, teleskopio eta guzti: Altzagan, Ordizian, Olaberrian, Lazkao mendin, Gabirian eta Zerainen. Ibilbide hau ezagutzera emateko foileto bat argitaratu du Goiekik.

Bi produktu hauen inauguraziora Rosa Diez Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Komertzio Sailburua etorri zen.

Aurrera begira, mendi bizikletarako hainbat ibilbide bilduko dituen liburuxka eta Santiago Bideari buruzko beste foileto bat argitaratzeko asmoa dago.

BOTA BERTSOA

**Gipuzkoako Eskolarte-
ko txapelketan botata-
ko bertsoak**

**Lau oinak emanda:
arazo, jaso, akaso,
itxaso**



Oier Zurutuza:

Lehengoan ezagutu nuen nik Itxaso, hark ekarri zidan hainbeste arazo, baina egin beharko dut morala jaso, arantzipe larrosik ba al da akaso.



Iban Urdangarin:

Nire neska ederra izenez Itxaso, bion artean bazen majinat arazo, horregatixe honek aldegin akaso, geroztikan ezin dut bihotzik jaso.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Alkartasuna lizeoa mailak galtzen hasi da

Iragan berri den maiatzean erabaki da jada ofizialki, Alkartasuna Lizeoko Batxilergoa Txindoki Institutura pasatzea. 1998-99 ikasturtean, ez da jada batxilergorik irakatsiko Alkartasuna Lizeoan. Niretzat ez da gauza berria. Orain 3 urte (1995eko maiatzean, Andramendi aldizkari-ko 4. zk.an) "Eskola-mapa Goierri" izeneko idazkian argi eta garbi azaldu nuen Alkartasuna Lizeoan, publiko bihurtuz gero, aurrerantzean ez zela Batxilergorik irakatsiko. Eta orain, apurka-apurka egoera argitzen ari den honetan, hori betetzera doa. 1998-99 ikasturtean, orain arte Lizeoan ibilitako ikasleek, bide publikoan jarraitzekotan, Batxilergoa, Txindoki Institutuan ikasi beharko dute.

Dirudienez horrek harri-dura sortu du guraso batzuegan baina ez du ezer harritzekorik. Horixe da publiko bihurtzearen ondorioa. Baina ez da dena hor bukatuko. Aurki, Lizeoko DBH ikasketak Loinazpe Institutuaren ardurapean izango dira, izan ere, hura baita maila hori irakasteko eskualde honetarako Institutua. Nola eta noiz izango den hori? Ba administrazioari komeni zaionean eta kito!

Kontrakoa agindu zutenek, gezurra esan zuten eta orain hori bistan gelditzera doa. Kontuak eskatzekotan, 2tik 18 urterarteko irakas-kuntza Lizeoan izango zela behin eta berriz agindu zutenei eskatu. Jose Inazio Arribabalagak eta enparauek erantzun dezatela. Orain haiei eskatu kontuak. Nik eta beste batzuek duela hiru urte iragarri genuen hori, baina ez zitzaigun sinetsi nahi izan.

Orain, eutsi ondorioei.

Herri Eskola = Eskola Publikoa = Administrazioak kudeatutako Eskola, esanahi bereko hitzak dira. Administrazioak bere erara kudeatzen ditu bere eskolak. Kudeaketa—eredu hori lehen ere hor zegoen Beasainen (Murumendi-Loinazpe-Txindoki) eta orain ere hor dago. Horretaz ez dut beste ezer esatekorik. Administrazioak, berak eta bere erara agintzen du beti bereak dituen gauzetan eta ahal duen guztia besteenak direnetan. Hemen dugun administrazio-ereduak ez du inoiz utziko bere barnean beste kudeaketa-eredurik sortzen. Hori bere hezkuntza-agintzearen galera litzateke. Hori ez aitortzea, inozokeriak edota interesak eragiten du. Alkartasuna Lizeoa ikastola zen eta eskola publiko bihurtzeko eragiketa gidatu dutenek (otso asegaitez), nahiz lagundu dutenek (bare inozok), eskola-ereduaren aldaketa eragin dute baina ez hori bakarrik. Ikastola zena eta izateko eginga zena administrazioaren eskuetan jarri dute (argiago esanda, Ikastola, administrazioari oparitu diote beren interesen truke) eta bakoitzak bere erantzukizunak ditu. Horretaz jabetu ez dena inozoa da. Orain, aukera horren alde egin zutenak sare publikoak irentsiko ditu eta benetan irentsi ere bere arauen arabera. Bilatzen ari zirena aurkitu dute, beraz, horietako inor ez bedi orain kexa.

Noski, inork ez dezala hor Ikastolarik espero. Hori, hainbeste aidatu duten Eskola Publikoa da, bere abantaila eta desabantaila guztiekin eta aldian aldiko planifikazioaren arabera, herriko beste Eskola Publikoen artean urtuko da. Ikastola nahi edo behar duenak beste norabaitera jo beharko du. Kasu ho-

netan Beasaingo Ikastolara jo dezake, hori da eta Beasainen dagoen Ikastola bakarra. Hemen gauza bakoitzak bere izatea du eta izate-modu bakoitzari bere izena dagokio. Une honetan, gauzek izen horiek eta izate horiek dituzte (mesedez, egiaren izenean, ofizialki lehen ere ez zeukan eta orain eranskinetan jendea nahasteko jarritako Ikastola izena, kendu mesedez Lizeoko hormetako letreroetatik!). Gauzak argi beraz, seme-alabak Ikastolara bidali nahi dituenak, Beasainen, Beasaingo Ikastolara bidali beharko ditu 2 urtetik 16ra bitartean eta 16tik 18ra Goierriko Ikastoletako Batxilergora eta gainerakoek eskola publiko-ra nahiz pribatura, denetatik baita herri honetan, baina inor ez bedi engaina eta ezta orain espantuka hasi ere. Espantuek lehen behar genituen, baina ez genituen behar adina izan. Orain, bakoitzak duena du edota izaten utzi zaiona. Ikastoletan orokorki egindako sarraskia (Beasaingoan barne) gauzatua da jada. Hau bigarrena izan da. Lehena, administrazioak herri txikietako Ikastolak irensteko erabilitako herri-eskola deituen irensketa-formula maltzurra izan zen. Bigarrena 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legearena eta bere aplikazioaren inguruko zeharbide makurra izan da. Hirugarrenik edo laugarrenik ere etor daiteke Ikastolen (Euskal Herriko herritar soilek beren seme-alabak euskaldun legez hezteko asmatutako autogestiozko ereduaren) desagertzearen ildoa, izan ere, bai lehen eta are gehiago orain, jatorri desberdineko interes ugari baitaude Ikastolen desagertzea helburu dutenak. Erne beraz, eginga dakoari eutsi eta aurrerantzean begiak irekita bizi. Historia behin eta berriz errepikat-

zen baita Euskal Herrian eta baita Beasainen ere noski.

Andoni Sarriegi (Beasain)

Segurako bariantea edo EA eta PNVren prepotentzia

Gaurdainoko bariantearen aurkako arrazoak gutxi baldin baziren, orain Goierri eskualderako Euskal Gobernuak eta Diputazioak prestatuturiko PTPean ere, bariantearen aurkako jarrera azaltzen da nabarmen. Jarrera hori, eskualdeko hainbat erakunde ekonomikoekin kontrastatua izan da (Goieki barne). Begira zer dioen:

"Ensanche y mejora de la GI-2637 entre Idiazabal y Segura y entre este último municipio y Zegama. En el caso de la variante de Segura el P.T.P. ha estudiado tanto esta posibilidad como la alternativa de sustituir la referida infraestructura por una travesía de borde por la ronda este del casco (solución apuntada por Segura) entendiendo que esta solución respondía mejor, desde un punto estratégico territorial global, al doble objetivo de funcionalidad de la red y regeneración del casco, al tiempo que evitaba presiones innecesarias sobre los terrenos de la Vega que, en opinión de este Documento, debieran quedar al margen del desarrollo urbanístico. Esta opción cobraría mayor fuerza caso de realizarse el aparcamiento disuasorio de camiones propuesto en el entorno de la empresa Aristrain".

Benetan penagarria EA eta PNVren jarrera. Orain arte ez dute, ez arrazoi ekonomikorik, ez demografikorik, ez teknikorik, ez sozialik azaldu, bariantearen alde egoteko. Arrazoi bakarra, "horretarako dirua ematen digute". Ez diezute hogetaka alegazioei jaramonik egin; herritarren lauhun eta piko sinadura, herrikontsulta eskatuaz, bazterrera bota dituzte. Orain Diputazio eta Euskal Gobernuaren txostena ere, aurka daukaze. Benetan lotsagarria zuen prepotentzia. Gure herriak, Segurak, ez du honelako zigorrik merezi.

Segurako Herri Batasuna

TXANDAKA

'El halcon blanco'

Teknika aurreratuenei esker, zeruan inon diren espazio-ontziak ikusarazten dizkigute, itsasoak seko lehortzen dituzte, milaka lagun bizi diren etxe-dorreak ipurditik bota eta protagonista izan ezik, denak hil direla sinestarazten digute, hiltzeaz dagoena bizi-bizirik dantzan eta dantzan dabilena erdi hilda jartzen dituzte... teknika aurreratuenei esker zinean.

Hainbesteko mirakuluak egiteko gai gara laborategi eta estudioetan sartuta eta ez ote dugu teknikarik Aralarren antzeko dekoratua prestatzeko, behar ditugun hotsak soilik hautatzeko, besteak ixilduz, eta Ñañarritik Alotzara eta Alotzatik Oiduegira goazela sinestarazteko modukorik?

Munduan bakarra zara, Aralar. Ez daukazu antzekorik. Urbasa duzu anaia eta hangotarrek azkar asko bidali dituzte milioien eskaintzak, kamerak, aktoreak, zuzendariak eta gaineratiko 'interesatuak' zakurraren ipurdira. Artzainena artzaintzat.

Abiadura Handiko Trena egiteko barruak zulatu eta tunelez, 'hestez', betetzen bazaituzte, jada eginik dituzun zauriak ugaritzen badizkizute pista bideak, errepideak, oporretako 'txabolak', aparkalekuak, tenis-zelaiak eta aisialdirako hainbat eraikin eginez, zureak egin du! Gureak egin du!

Txikizioekin aurrera jarraitzen badugu, etxe-zulotik telebistan edota zinemetako pantaila handietan ikusiko dugu laster batean honela hasten den filmea: "Bazen behin Aralar izeneko mendikate bat..."

Ez ahal diegu hori egin nahi dutenei, nahi duten guztia egiten utziko!? Athletic eta Realak zoriontzeko eta haien garaipenak ospatzeko etxetik ateratzea ez dago gaizki, baina horrelako arazo larri baten aurrean ere aterako ahal gara! Lor dezagun nahi duguna eta ospa dezagun, ondoren, garaipena.

Aralar bizirik nahi dugu, Urbasa bezalaxe.

Joxepa Madariaga



Munduko futbol txapelketa jarraitzen ari al zara?



Mikel Asurmendi

**39 urte, langabetua
zegamarra**

Ez zait futbolik gustatzen. Berdin zait nork irabazten duen.

Jon Berasategi

**13 urte, ikaslea
zegamarra**

Kasu askorik ez diot egiten futbolari. Brasilek irabaziko du aurtengo munduko txapelketa.



Luis Lasa

**25 urte, tabernaria
zegamarra**

Zerbait jarraitzen ari naiz, tabernan derrigor. Futbola dagoenean jendeari telebista jarri behar izaten zaio. Frantzia, Brasil, Alemania edo Espainiak irabaziko du.

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN

UNTXUNDEI

garajea

OSINALDE

karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

ZINEA

BEASAIN:

'El hombre de máscara de hierro'. Ostirala 19: 22:15; larunbata 20: 19:30 - 22:15; igandea 21: 19:30 - 22:15; astelehena 22: 19:30- 22:15.

ORDIZIA:

'Torrente, el brazo tonto de la ley'. Ostirala 19: 22:15; larunbata 20: 19:30 - 22:15; igandea 21: 19:30 - 22:15; astelehena 22: 19:30.

'Tic-tac'. igandea 21: 16:45.

MUSIKA

BEASAIN:

Ekainak 19, Talde barrokoa, parrokian, 20:30ean, Musika Eskolak antolatuta.

Ekainak 21, Kea abesbatza: XX. mendeko musika, parrokian, 20:30ean.

Ekainak 26, Alaitz eta Maider eta Benetan taldearen kontzertua, Arriaranen, 23:30ean.

Ekainak 27, Etzakit, Arriaranen, 24:00etan.

IDIAZABAL:

Ekainak 20, Oskorri taldearen '25 kantu, urte' kontzertua, Igarondo pilotalekuan, 22:00etan.

OLABERRIA:

Ekainak 20, Berri txarrak eta Flujo, 24:00etan.

Ekainak 21, Etzakit, 23:00etan.

Ekainak 23, Kristina eta Amaia trikitilariak, 23:00etan.

ORDIZIA:

Ekainak 26, Gipuzkoako Kamara eta Oroith abesbatzen kontzertua, elizan, 20:15ean.

Ekainak 28, Zarauzko Musika bandaren kontzertua, 13:00etan, Plaza Nagusian.

SEGURA:

Ekainak 23, Naroa Enekotegi eta Zegamako Orkatz abesbatza, elizan, 20:00etan.

ZALDIBIA:

Ekainak 25, Iparraldeko Guk taldea, 22:30ean, pilotalekuan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Uztailaren 3ra arte, Patricia Piñeiren pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

ORDIZIA:

Ekainaren 26ra arte, Michéle Neurriseren pintura erakusketa, Barrenan.

Uztailaren 1etik 15era, Barrena Kultur etxeko tailerreko ikasleen pintura eta zeramika erakusketa, Barrenan.

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxa: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

943 88 51 68

ORMAIZTEGI



MARIAN LARREA
BARNE DEKORAZIOA

- ✗ ERREFORMAK
- ✗ PROIEKTUAK
- ✗ ESZENOGRAFIA

943 88 58 48 - 943 46 34 79
Oriamendi, 30 BEASAIN

Haur - eskola
SEASKA
942 66 39 26
ikasleen etorbidea, 1
BEASAIN



- ✓ 0-3 zikloa bere osotasunean eskeintzen duen zentro bakarra
- ✓ 1a 20 urteko esperientzia
- ✓ Giro euskalduna (D eredua)
- ✓ Bertako sukaldean prestatutako janariak
- ✓ 3 urtetik aurrerakoentzat zerbitzu irekia: goiz, eguerdi eta arratsaldeko zerbitzuak; eta eskola-ikastolako oporraldietan aktibitate eta irteera bereziak (udalekuak)
- ✓ Matrikula epea irekita dago

BERTSOLARITZA

ZALDIBIA:

Ekainak 19, Lizaso, Irazu, Iturriaga, Estitxu eta Manolo Arozena eta Maia, 22:30ean, pilotalekuan.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Ekainak 21: Arbarrain.

Ekainak 28: Iturriozko benta-Getaria.

Ordiziako mendizaleak:

Ekainak 21: Larraitz - San Migel.

Ekainak 27: Ordizia-Orio ibilaldia.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Abuztua Zumaian pasatu nahi baduzu, pisu txikia daukat alokatzeko. Ongi kokatua eta erabat hornitua. Bosgarrena, igogailurik gabe. Polita. Telefonoa: 943-86 12 24.

☐ Santa Polan apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 40 metrora, herri erdi-erdian. 943-88 83 18.

☐ Goierrin pisu bat hartu nahi dugu lehenbailehen alokairuan. 919-47 53 74.

Salerosketak:

☐ Txakurkumeak salgai. Gurasoak Boxer eta Rottweiler arrazakoak, pedegreedunak. 943-887119. 8etatik aurrera deitu.

☐ Gaztainondoeko bionboak salgai. 943-88 31 60. Gaez deitu.

☐ Karreterako bizikleta salgai. 'Mendiz' markakoa, berri-berria. Gaez deitu 943-88 82 95-era.

☐ Comanche markako kanpin-gurdia salgai. 2 gelakoa eta abantze bikoitzekoa. Behin erabilia. 943-885873.

☐ Pitt-bull txakurkumeak salgai. Pantxo eta Patrick odolekoak. 50.000 pezetan. 943-79 37 17.

☐ 486 ordenagailua salgai, 16 Mb-eko memoria, 850 Mb-eko disko gogorra eta 8Xko Cd-Rom

unitate batekin. 943- 65 29 95.

Lana:

☐ Neska bat behar da etxeko lanak egin eta 2 haur zaintzeko. 943 - 639192.

☐ Tabernarako neska bat behar da. Datu guztiak bidali Beasaingo 144. posta-kutxara.

☐ Zuen elizkizunak (ezkontza, zilarrezko eztei, bataio...) apain ateratzea nahi duzuela? Lau neskez osaturiko talde bat gaituz, eta gure ahots, kantu eta instrumentuez dotoretuko dugu zuen zita. 943 - 88 27 38 / 943 - 88 75 05.

☐ Udako mekanografia ikastaro intentsiboak Beasainen eta Idiazabalen. 943-889993 / 943-187188.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 943-88 05 87.

Ekainak 20-21: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943-88 01 52.

Ekainak 26-27: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia). 943- 88 26 28.

UDA IKASTAROAK - UZTAILA 98

Kanpo irteerak egiteko aukera, Goierrri ezagutuz eta euskaraz biziz

GOIZTIRI



EUSKALTEGIA

IKASTAROAK		MATRIKULA EPEA	MAILAK	ORDUTEGIA
3 ASTEKOAK	4 ASTEKOAK	Ekainaren 25era arte	Euskalduntzea	3 ordu: 10-1
Uztailaren 6tik 24ra	Ekainaren 29tik uztailaren 24ra		Alfabetatzea	4 ordu: 9-1
			Sakontzea	5 ordu: 8,30-2
			EGA	

INFORMAZIO GEHIAGO

ORDIZIA: Santa Ana Ikastetxea ☎ 88 91 74

BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 88 93 40

Udalak ikasleei matrikula subentzionatuko die.

UDA IKASTAROAK

IKASTEK AKADEMIA

KALITATEA eta PROFESIONALITASUNA

✓ IRAILEKO AZTERKETEN PRESTAKETA

- ☐ OHO, DBH, LOGSE, LH, BBB, UBI.
- ☐ Maila eta arlo guztiak
- ☐ Datorren ikasturterako prestaketa

✓ ESKOLA LAGUNTZA

- ☐ Banakako laguntza
- ☐ Lehen Hezkuntzatik aurrera

✓ UNIBERTSITATE MAILA

- ☐ Enpresaritza
- ☐ Ingeniaritza
- ☐ Kimika

Informazioa: ☎ 943 16 01 20

Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN

Ez diogu lehenbiziko aldiz, meategitik ateratako sustantzi kimiko kutsatu tona asko daudela, Troyako urtegian. Bertan, meategitik ateratako hondakinak (pirita), eta zinka eta beruna garbitzeko erabiltzen zituzten sustantziez osaturiko lohia dago.

Exminesa empresa, ahalik eta etekin gehien eta azkarrenak lortzearen, ez da urteigira ateratzen zuen zianuro eta kobre sulfatoaz batera arduratu. Bi sustantzi hauek, gaur egunean ezagutzen diren kutsakorrenak dira, eta horren inguruan sortzen den arriskua handia da. Ez dugu esaten Espainian gertaturiko txikizioa gertatuko denik (nahiz eta aukerak beti egon), baina bai, horko pozoia filtratzeko posibilitateak badirela. Adibidez, euri jasa handiak egiten dituenen, horko lohia mugitu eta aldameneko kanaloitik errekarra joan daiteke, denborarekin lurrera eta ibaira ur kutsatu hori filtratuaz.

Honekin batera, hainbat galdera datozkigu burura: nork kontrolatzen du kutsadura hau guztia? Ze erabilpen ematen zaie sustantzia toxiko hauei? Noiz arte egoera hau? Betirako?

Badakigu gaur egun oraindik ur poltsa handia dagoela meategi barruan, eta kantitate bat galerietatik zehar kale-ratzen dela, berarekin hainbat mineral garraiatuz. Kontutan izan behar dugu gainera arazoaren zatirik larriena urtegiaren sakonean kokatzen dela, bertan daudelako metalak eta hau garbitzeko erabiltzen zuten zianuroa.

Madriko Unibertsitate Autonomo-ko ikerlari batzuen iritziz, ur hau tratatu egin beharko litzateke. Hondakin arriskutsuekin jarraitzen den prozesua eman beharko litzateke, sakonean dauden metal eta zianuro askodun lohiak eta pirita ondo babestu eta kenduaz.

Aznalcollarreko (Espainia) txikizioak, gure artean zer daukagun nabarmen

Troyako urtegia, herriko kutsadura

utzi digu. Irtenbideak badaude, eta nahiz eta hainbat arduradun instituzio-naleko bilerak egin, ez dago ezer ere egiteko borondaterik. Kezkatuak egoteko arrazoiak baditugu, eta gu, hala gau-

Orain, altzairugintzako eskoria tratatzeko kokapena

Exminesak meategia zorrez lur jota uzteaz gain, ez zuen ingurua txukuntzeko konpromezurik hartu. Bestalde egoera honen aurrean, instituzioek ez zioten enpresari inongo zehapen edo santziorik jarri.

"Meategiko kutsadurarekin nahikoa izango ez bagenu bezala, oraindik ere gehiago ekartzeko asmoa du udal honek"

Orain, berriz, meategiaren hondakinez gain, altzairugintzako hautsak eta eskoria tratatzeko ekimen pribatu bat jarri nahi da martxan. 1998ko apirilean Altuna-Uria enpresak, "ingurua txukundu eta ingurugiroaren ikerketa" egin zuen, baina honekin batera, altzairugintzako hautsak tratatzeko kokapen proposamena egin zuen. Proposamen honen tramitazioa aurrera doa, eta badi-rudi inork ez diola eragozpen edo baldintzarik jarriko.

Meategiko kutsadurarekin nahikoa izango ez bagenu bezala, oraindik ere

gehiago ekartzeko asmoa du udal honek. Orain arte, hauts hauek Azkoitian kokatzen ziren, baina irregularitate eta ingurugiro arazo asko sortu ondorenean (ganadu eta zelaietan sorturiko kalteak barne) eta herritarren haserrearekin eraginda, itxi egingo da hil honen 27an. Honekin batera, aspalditik komentatu izan dugu (1997an hitzaldi bat eman ere bai) Palankako Sakonean Hondakin Toxiko arriskutsuentzat beste zabortege berezi bat eraiki nahi dela. Honen guztiaren aurrean, hainbat galdera datozkigu:

- Zer egin nahi dute gure herriarekin? Zabortege handi batetan bihurtu?
- Azkoitiarentzat txarra dena Gabiria- rentzat ona al da ba?
- Baimena eman ondorenean, hor botako dena nork kontrolatuko du?
- Zergatik proiektu hauek guztiak hemen?
- Lehen zeharo kutsatua dagoen herri batean oraindik ere gehiago ekarri nahi dute? Ormaiztegi ez du zer esanik?
- Nola da posible horrelako egoera batean udalak legea betetzen ari dela eta lasai egoteko esatea?
- Herriak ez du zer esanik?
- Ze etorkizun ari gara uzten gure herriari?
- Palankako zabortegean, zer kontrol dago? Zer ari da sartzen azkenaldi honetan hain ixilean ibiltzeko?
- Azken aste honetan gero eta mugimendu gehiago dago.

Tankera berdineko hainbat proiektu gure herrian egin nahi direla ikustean, kezka oso larriak sortzen zaizkigu eta herritarrei zabaldu nahi dizkiegu. Aldi berean, hau guztia bertan behera uzteko exijitu nahi dugu. Lau xoxen truke, gure herriaren geroa saltzen ari da norbait, eta ez dugu onartuko.

Jexux Gorrotxategi (Gabiria)

KUBIA

FAMILIAK EUROPA GUZTIAN ETA EEBetako
INGALATERRAKO HOTEL ETA LANDETXEETAN
LANPOSTUAK KONTRATUAREKIN
Arrasate, 33 behea C DONOSTIA
Tel-Faxa: 943 43 15 48

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA

ERREZETA



Gorka Izagirre
Ostatua
Mutiloa

LIMOI TARTA

Osagaiak: litro erdi bat ur, 2 limoi, 5 arrautza, 2 goilarakada maizena, 6 goilarakada azukre eta brise pasta.

Ura sutan jarri, bi limoiren zukua, azalaren birrindura, eta azukrea bota. Berotzean maizena, ur pixka batean urtuta jarri eta ondo nahastu irakin arte. Gero arrautza gorringoak nahastu, banaka. Hozten utzi.

Zuringoa aparte harrotu. Brise pasta labean egin, limoi kremaz bete eta merengearekin apaindu. Azkenik labean gratinatu, kolore pixka bat hartu arte.

AHOLKUA



Amagoia
Muruamendiaraz
Gerontologa

Dei nazazu aitona, amona, adindua... baina ez nazazu zaharra deitu, zeren eta "zaharrak trapuak dira". Honelakoren bat esan ohi digute noizbait geure aitona-amonek eta honen zergatia agian orain dela gutxi irakurri nuen Rosario Narajoren testu batek garbi adieraziko luke, testuak honela dio:

- ✗ Ez nazazu zaharra deitu
bizitza aurrera doalako
eta neure gorputza kixkurtzen doalako.
- ✗ Ez nazazu zaharra deitu
neure ilea zuria delako
eta burua iluna.
- ✗ Ez nazazu zaharra deitu
zeure laguntza behar dudalako

Dei nazazu!

eta zeuk ematen didazulako.

- ✗ Ez nazazu zaharra deitu
zeren jaiotzea bide bat da
eta jaiotzen diren denak zahar-
tzen dira.
 - ✗ Ez nazazu zaharra deitu
dei iezaidazu anai, lagun, adiskide...
zeren eta denok daramagu haur
bat, gazte bat.
 - ✗ Ez nazazu zaharra deitu
mesedez maite nazazu, uler na-
zazu
errespetatu eta onartu.
 - ✗ Ez nazazu zaharra deitu
eta ez ezazu neure gorputza al-
dendu
izan ere sufrimenduz beteta bai-
nago
eta bizi luze baten zama daramat
barnean.
- Mesedez, ez nazazu zaharra deitu!
- Agian, olerki honen bidez, bihar-
ko egunean nola deituko gaituzten
edota deitzea nahi genukeen pen-
tsatzen hasiak gara, baina ez ahaztu
erantzuna geurongan dagoela.

URBITARTE

sagardotegia



Erreserba telefonoa
943 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN



USURBE ZENTROA

- Hernia diskala (Tratamendu ez kirurgikoa)
- Lumbagoa, ziatika
- Kirol lesioak
- Errehabilitazioa

☎ 943 16 13 39
Andra Mari, 9-1.
BEASAIN

- ✓ Matematika
- ✓ Fisika
- ✓ Kimika
- ✓ Teknologia
elektrikoa

GOIERRI AKADEMIA

- ✓ INGELESA
Taldea txikiak
- Maila guztiak (%95 aprobaturak)
- Ikastaro bereziak:
 - Entzumena eta ulermena (DBH eta Logse plan berriei egokitua)
 - Komertziala
 - Azterketa ofizialen prestaketa

- ✓ MARRAZKETA TEKNIKOAK
- Mekanika
- Galdaragintza
- Plano interpretazioak
- Desarrolloak

K. Nagusia, 32 ☎ 943 88 82 03 BEASAIN



Ordiziako alkatearen etxearen aurka eraso

Ekainaren 6 gauean Ordiziako alkatearen, Juanbi Erauskin, etxebizitzan lehergailu txiki batek eztanda egin zuen. Bizilagunek berehala itzali zuten sortutako sua. Alkatearen aurkako eraso salatzeke, Osoko Bilkura berezia eta premiazkoa egin zen ekainaren 8an, iluntzeko 7etan. Udalbatzaren ondoren, manifestazio ixila egin zen herriko kaleetan zehar, alkateari elkartasuna adierazi eta ekintza salatzeke.

Juanbi Erauskinen orain arte bezala jarraituko duela adierazi digu, *"buelta eman arte kezka sortzen badira ere. Oso momentu txarrak bizitzen ari gara"*. Lerro hauetatik zera adierazi nahi izan du alkateak: *"agian komunikabideetan azaldu diren irudiak ikusita badirudiela ez dela ezer izan. Baina serioa izan zen. Hiru urteko alaba besoetan nuela atera nintzen, sua inguruan nuela. Hiru urteko alaba gaizki ari da pasatzen, edozein momentutan ateratzen du gaia. Horretan geldituko balitz, pasatu da eta kitto. Baina ez dakit hurrengoan zer izango den eta horrek kezka sortzen du"*. Erasoa egin dutenei *"ez diet opa beraiei bizitzan horrelako egoera bat bizitzea. Azkenean 3 urteko ume bat ikaratzea lortu dute eta horrekin pozik badaude, jarrai dezatela pozik"*.

EAJ eta HBren artean, gertatzen dena gertatzen dela elkarriketan jarraitzeke erabakiaren aurrean, Erauskin eszeptiko azaltzen da: *"honen ondorioz pistolak eta heriotzak bukatuko balira, bai alde batetik, bai bestetik, ondo. Baina horretan nahiko eszeptikoa naiz, ikusten baititut ondoren benetako jarrerak zeintzuk diren. Gauza bat da hitza, eta bestea egiten dena. Eginkizunetan ez da frogatzen esaten dena"*.

Alkateari egindako eraso salatzeke Udalbatza berezia egin zen ekainaren 8an. EA, PSE-EE, IU-EB eta EAJk onartutako mozioaren arabera, *"kontzientziatu egin behar dugu denok elkar hartu eta defenditu egin behar ditugula —bake eta lege bideak segituz, baina baita arrazoiak ematen digun irmotasun guztiarekin ere— ordiziar guztiok geuon buruari eman dizkiogun eskubideak eta libertateak, eta gure herriak eskubide osoz dituenak"*.

HBko ordezkariak, Ertzaintzak hildako Inaxi Zeberioaren kasua jarri zuen mahai gainean eta EAJrekin elkarriketa hasteko jarrera azaldu zuen. Udalbatzak iraun zuen bitartean, 'Inaxi gogoan zaitugu, herriak ez du barkatuko' zioen pankarta azaltzen zuten HBko zenbait jarraitzailek.

CAF

Beasaingo CAFek Washington 110 tren egiteko kontratua lortu du, 32.000 milioiokoa.

Irizar

Aurtengo lehen hiru hilabeteetan, 5.440 milioi pezeta fakturatu ditu Ormaiztegiko Irizar kooperatibak; iaz baino % 34 gehiago.

'Yoyes'i buruzko pelikula

Helena Taberna zinegile nafarra irailean hasiko da Maria Dolores Gonzalez Katarain 'Yoyes'i buruzko pelikula errodutzen. ETAkoa izan zen 'Yoyes' eta erakundea utzi ondoren, ETAk hil zuen Ordizian. Carmelo Gomez eta Ana Torrent izango dira aktore nagusiak.

Pujanatarrei omenaldia

Donostiako 'Goizaldi' dantza taldeak eta Ordiziako Udalak Jose Lorenzo eta Kandido Pujana ordiziarrek omendu zituzten ekainaren 13an, Ordizian. Gipuzkoako dantzen erakusleak izan ziren Pujanatarrek. Beraiei jaiotetxean plaka bat ezarri zuten.

Ibai Urdangarin

Ekainaren 5ean banatu ziren Azkoitia, VII. Xabier Munibe bertsopaper lehia-ketako sariak, bertan, Iban Urdangarin ataundar bertsolari gazteak lehendabizikoa erdietsi zuenarik, 'Pailazoaren gazi-gozoak' lana-rekin.

Goierriko moduloak

16-20 urte bitarteko Goierriko gazte langabetuentzat 5 modulo antolatu ditu

Goierri Langintza eskolak, datorren ikasturterako. Aurtotik motorren mekanika; karreroariako pintura; sukaldaritza-gozogintza; igeltseritza; eta soldadura. Goierriko Lanbide hastapenak Goierri Langintza eskolan duen bulegoan eman behar da izena, uztailaren lehenengo hamabostaldian. Matrikula irailaren lehenengo hamabostaldian egin behar da. Harremanetarako telefonoa: 943 88 92 00.

Aitor Furundarena

Ordiziar soinu-jolearen Furunda taldeak 'Juanita' diskoa kaleratu du. Dantzatzeko moduko 16 pieza biltzen dira bertan, gehienak umorezkoak. Aitor Furundarenarekin batera, Javier Area, Josema Moreno eta Jorge Gonzalezek osatzen dute taldea.

Auzolandegiak

Gazte Kutxak 2 auzolandegi antolatu ditu Goierriko aurtengo udarako. Beasainen, azken urteetan bezala, Igartzako jauregia txukundu dute bi epetan: uztailaren 6tik 19ra 16-18 urtekoek eta uztailaren 20tik abuztuaren 2ra, 18-21 urteko gazteek. Bigarren auzolandegia, Ataunen izango da. San Gregorioko errota multzoaren azpiegitura hidraulikoa berreskuratzen eta garbitzen ahaleginduko dira, uztailaren 20tik abuztuaren 2ra bitartean, 18-21 urte bitarteko gazteak. Izena eman nahi dutenek Kutxako bulegoetan izango duzue informazio zehatza.

Josune Bereziartu

Beasaindar eskalatzaileak 8c maila duen bide bat gainditu zuen maiatzaren 21ean, Oñatiko Araozko



Txiste idatzien VII. txapelketa

Honako hauek izan dira Goierriko 'Goiztiri' AEK-k antolatu duen txiste idatzien txapelketako irabazleak: Beasaingo Maider Zabaleta, Ordiziako Gabriel Sanchez eta Itsasondoko Juli Teijeira. Aurtengoa zazpigarren edizioa izan da, eta aurrekoetan bezala, txiste mordoa heldu da Goierri osotik eta kanpotik ere bai (batzuk Errumaniatik ere bidali dituzte). Aukeraketa, beti bezala, Lazkao, Ordizia eta Beasaingo AEK-ko ikasleek egin dute, eta irabazleek bi lagunentzako afari bana izango dute Lazkaoko 'Amebi' sagardotegian, Zaldibiako 'Lazkao Etxe' jatetxean eta Gabiriako 'Korta' sagardotegi itsaskitegian.



Beasaingo Errail antzerki taldearen aurkezpena

Beasaingo Errail antzerki taldeak 'Hitz egin dezagun... sexuaz' antzezlanaren aurkeztuko du ekainaren 26an, iluntzeko 8,30etan, Beasaingo Usurbe Antzokian. Maider Agirre, Ana Barrero, Aitziber Garmendia, Ainara Mujika, Mari Luz Torreño eta Miren Zufiaurre dira aktoreak eta zuzendaria Rosa Rojo. Maitasunaz hitz egingo dute, maitasun harreman bat bizirik irautea nola lortzen den ez badakite ere. Dario Fo eta Franca Ramerren testuetan oinarritu dira.

hormetan. Munduan maila horretara iritsi den lehen emakumea da. 30 metroko sabaia da aipatu bidea, eta 47 pauso ditu, horietako bi oso zailak.

Aitor Garmendia

Sasoi onean dago Aitor Garmendia txirrindularia. Euskal Bizikletan bigarren

egin bazuen, Aragoiko itzulia bera izan zen lehenengo sailkapen nagusian. Bigarren aldiz jarraian irabazi du Aragoiko itzulia.

Zugaitz Ayuso

Itsasondoko txirrindularia bigarren izan zen, Lizartzan, elite eta 23 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketan.

Afizionatueta lehen denboraldia du Ayusok.

Jose Mari Gonzalez

55 urteko ordiziarra bihotza transplantatu dutenen Europako Txapelketatan izango da, Alemanian. Txirrindulari profesionala izan zen 17 urtez Gonzalez, eta 4 Espainiako ziklo-kros txapelketa irabazi zituen. Berriz ere

txirrindua hartuko du orain, trasplanteren bat dutenek bizitza normala egin dezaketela erakusteko.

Ander Telleria

Beasaingo arku-tirolaria Alemanian Europako Grand Prix jokatzeko ari da, ekainaren 16an hasi eta 24ra bitartean.



Haseratikan baldin banuen era hontako apustu hiru urtetan egindakoa aurtengoz ezin apurtu esker onean nahi nuke gaur ni zuengana makurtu San Joan jaien aitzakiakin herriar danak agurtu.

OLABERRIKO UDALA ALKATEAREN AGURRA

Jai Batzordeak hartu ondoren lan hontan hainbat endredu egitaraua zabalduz benetan pozik gaude gu San Joan horri egin deiogun barru barrutik erredu bera dalako gure zaindari eta guztion eredu.

Elkar harturik burutu zagu aurtengo jaien ametsa egun hauetan utzi albora gorrotoan esamesa denen aurrean defendatuaz geure buru jabetza horretarako izango dugu Udaletxeko babes.

Kanpotar eta ezin dutenak dauzkat orain zorrean zer ikusia badute hoiek noski gure altxorrean erakusteko prestatu garen oso era dotorean guztiontzako dago tokia gure kaxko tontorrean.

*Alkatea
Agustin Agirre Urteaga*

Artzainak protestan Aralarren egin behar duten pelikulagatik

Aurreko alean aurreratu genizuen bezala, Aralarren, Igaratza inguruetan, errodatzekotan diren 'El halcon blanco' filmearen aurrean artzainak kexu azaldu dira. Pelikula hau errodatzeko baimenaren erabakiak hartzeko era eta artzainei sortuko dizkien eragozpenak dira haserrearen arrazoi nagusienak.

Mate production produktora frantses-espainiarrak Aralarren 'El halcon blanco' errodatuko dute abuztuan. Prestakuntza lanak egiten ari dira eta hasi dira dagoeneko gaztelua eta gotorlekua eraikitzen, Doniturieta-Igaratza inguruetan. Artzainek eta EHNE sindikatuak salatu dutenez, kalte zuzenak eragiten ari zaizkie bertako larreatatik bizi direnei: "larreetatik atera behar dute, artaldearen mantimenturako kostuak igotzen zaizkie, bizimodua aldatu eta eraldatzen zaie".

EHNEk pelikula hau errodatzeko erabakiak hartzeko modua salatzen du, "izan ere sektore afektatutarekin ezertarako kontatu gabe eman baitzaio baime-na filmearen produktorari. Enirio-Aralarko mankomunitateak eta Aralarko Parke Naturaleko zuzendaritzak erabakia hartu ondoren eman zaie artzainei pelikularen berri, egia osoa ere ez zaielarik esan. Urbanas gertatu dena kanpotik enteratu direlako, oso engainatuta sentitzen dira. Urbanas erabakiak bertako ganadu-



Artzainek Ordizian egindako protesta.

zaleen juntak hartzeko ahalmena duen bezala, Gipuzkoaldeko Aralarren artzainek ez dute ahotsik ez maila hortako erabakiak hartzeko, ez eguneroko dinamikan Aralarko kudeaketa organoetan parte hartzeko behin eta berriro eskatu bada ere.

Dena den, EHNEk adierazi duenez, ez daude pelikula errodatzearen aurka,

baina garbi utzi nahi izan dute, artzainek bizimodua hortik ateratzen dutela eta pelikularen montaje osoak iharduera ekonomikoaz gain, eguneroko bizimodua aztoratu egiten diela. "Artzainen bizimoduarekiko errespetu falta ikusten da. Galdegiten dugu ea zer pentsatuko ote litzatekeen artzainak ardiekin Donostiako Victoria Eugenia an-

Enirio-Aralar Mankomunitatearen iritzia

Juanbi Erauskinen, Enirio-Aralar Mankomunitateko lehen-dakaria, adierazi digunez, pelikula honek 3 artzainen eremu eragingo die. Proiektua esku artera iritsi bezain laster jarri omen ziren harremanetan artzain hauekin eta akordio-ira iritsi ere bai. Ardientzat alpapa eramango die filmearen errodaia irauten duen bitartean. "50 bat artzain daude Aralarren eta egia da artzain guztiekin ez dela hitz egin, baina afektatuenekin bai. Aralarrek 2.000 hektarea ditu eta 20 hektarea bakarrik erabiliko dira. 20 hektarea horietatik gehiena, belarra hazten uzteko erabiliko da. Gaztelua egiteko lekua 1.000 m²koa izango da". Gaztelua eta ingurua zurezkoak izango dira.

Mate produktorakoek Goardaetxetik doan pista konponduko dute eta baita Portales inguruan aska bat egingo ere. Erauskinen jakinarazi duenez, 10 milioi pezetako abala jarri da, trasteak eramateko jarritako baldintza betetzen dela bermatzeko. Honetaz guztiaz gain, Aralar ezagutzera emateko aukera polita dela uste du Juanbi Erauskinen.

Mankomunitatean parte hartzea eskatzen dute artzainek: "15 herrien elkarteak da Mankomunitatea, udaletako ordezkariak osatua. Udaletxeko plenoan edozeinek parte hartu dezan eskatzea bezala da hori. Arazorik izan dutenean, azalpenak emanez parte hartzeko aukera eman zaie, goardaren bitartez egin izan da lotura hori. Boto bidez parte hartzea ez da posible", dio Erauskinen.

'El halcon blanco'

Espainiako Mate Production eta Frantziako Pan Européene produktoreen arteko elkarlana da 'El halcon blanco'. Vincent Perez eta Juan Echanove izango dira aktore protagonistak. Ertaroan oinarritzen da filmea. Istoria sinplea da: pertsona batek belatz bat hazi du beste pertsona bat hiltzeko. Haren planen berri izan, eta ume batek, Eliazek, bereganatu egingo du belatza, eta hil behar zuen pertsona babesteko haziko. Abuztuan, hamabost egunez, grabatuko dute eta 125 pertsona ariko dira lanean. 125 estra ere kontratatuko asmoa omen dute.

tzokira sartuko balira zine emanaldi batean?". Artzainek adierazi dutenaren arabera, artzaintzat uda partean, maiatzetik hasi eta azaroa bitartean ezinbestekoak dira Aralarko larreak bizimodua artzaintzat ateratzeko. Filmea beraiek mendian ez dauden garaian egitea eskatzen dute, edo beraien artaldeak ohiturak eraldatuko ez dituzten lekuetan. "Aralar zabala da eta saiatur gero aurkituko litzateke leku egokiren bat".

Azken urte hauetan berrikuntza batzuk egin badira ere, oraindik asko dagoela egiteko adierazi dute artzainek bide batez. "Txabola kopuru handi bat dago inolako konponketarik gabe, hau da, baldintza minimorik gabe. Txaboletako iris-pideei dagokienez beste hainbeste, jakin arren leku batzuetan bideak irekitzea ezinezkoa dela, baina ahal den lekuetan ere oso astiro doaz egokipenak".

XABIER MURUA, GABIRIAKO ALKATEA, TROYA MEATEGIKO HONDAKINEKIN LASAI: "Momentu honetan presa egoera onean dago"

Doñanako gertaera dela eta denen ahotan izan da Gabiriko minen ondakinez beteta dagoen presa. Udalak bilera egin zuen Diputazioan eta azterketak ikusi ondoren erabaki zen, urtero presari jarraipena egitea beste urtegietaiko presei egiten zaien bezala.

1982-83an hasi eta 10 urte inguru egon zen funtzionatzen meatzea. Batik bat beruna eta zinka atera zuten. Hori ateratzeko sortzen zuten pirita kantitate handia eta beste zenbait metal potzura botatzen zuten. Meatzea itxi zenean enpresak ordainketa-etendura eginda alde egin zuen, guztia zegoen bezalaxe utzita. Enpresak konpromezua zuen instituzioekin ustiapena bukatzen zenean inguru horren errekupeazioa egiteko. "Udalak beti hori horrela egingo zela uste izan zuen, baina ordainketa-etendura egin zuenean Tolosako epaitegiak ukatu egin zigun hor zegoen diru bat errekupeazio horretan erabili ahal izatea, lehentasuna lagileek, gizarte segurantzak etabarrek baitzuten", dio Muruak.



Errekuperazio plana

2-3 urtetan nahiko egoera txarrean egon da. Udalak hainbat gestio egin zituen eta errekupeazio plan bat osatzea lortu zen. Orain Asfaltos Urretxuk hartuko du hor dagoen pabilioia eta berari eskatu zaio errekupeazio plana aurrera eramatea eta horretan ari da. Eskoria erreziklatu eta asfaltoa egiteko harri koxkorak lortuko du enpresa honek. "Martxan hasi aurretik aktibitate molestegarriak eta kaltegarriak bete beharko du, esposizio publikoan egongo da eta betebeharrak guztiak goitik behera bete-raziko zaizkio", garbi utzi nahi izan du Gabiriako alkateak.

"Presan dauden metalak sulfuroak dira eta hauek ez dute inongo arriskurik oxigenoarekin kontaktorik ez. Burnia, pirita oxidatzean sortu ziren arazoak,

erreka erabat gorrituz", gogoratu du alkateak.

3 aukera

3 aukera daude, dena urarekin estaltzea edo dena lurra-ekin estaltzea, honela oxigenoarekin kontaktorik ez duenez ez da oxidatzen. 3. aukera, berriz, orain arte egin dena, ur azpian dagoena horrela utzi eta presatik atzera daudenak lurrarekin estali.

Meategi barruan izugarriko manantiala dago, bertatik beti ura eraman izan da Segurara, Mutilora..., orain manantial hori kutsatuta dago. "Ur hori zuzenean errekarara joaten dena zikindu zuen, orduan pentsatu zen egokiagoa zela ura presara bota eta horrela egonkortu egiten da, mineralak hondoratu egiten dira eta ur garbia ateratzen da errekarara. Irterako uraren analisiak momentu honetan onak dira. Diputazio-

ak denborarekin ur hori aprobetxatu egin nahi du kontsumorako edo Estanda errekararen kaudal edo ur-emarirako. Azken analisietan garbi ikusten da Estanda kutsadura badu, ez dela meatzearen eraginez, baizik eta inguruan dauden industriengatik" dio Muruak, uraren irteera azterketak hamabost egunero egiten direla gaineratuaz.

Meatze barruan ura

Ur hori beti hor egon da eta mineral horiek ere beti hor egon dira. "Gertatu dena da galerietan haizea sartzearekin sulfuroak oxigenoarekin sulfuro azido bihurtu direla, urari azidotasuna emanez", alkateak dionez. Meatzean lan egiteko uraren maila 250 metro jeitsi zen bonben bidez. Meatzean uztean poliki-poliki betetzen joan da, eta orain 3 urte hasi da berruko 'presa' hori gainezka egiten, "izugarriko ur kapazitatea dago mina barruan, Arriaran go presa bezalako bost. Momentuan ur hori edateko modukoa ez bada ere zenbait ziprinido bizi dira eta denbora gutxi barru erabat garbitzen denean ur potablea izatea espero da. Denborarekin estabilizatu egingo da eta lehen zegoen bezala geratuko da", dio Xabier Muruak. Manantial horrek sugunduan 60/70 litro ematen ditu.



☎ 943 88 55 00 ORDIZIA



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:

☎ 943 88 03 15

San Joan jaiak Olaberrian

Ekainak 20, larunbata:

10:00etan: Txirrindulari proba: gazteen mailako IX. Gipuzkoako itzulia.

11:00etan: Probintzia mailako bola txapelketa.

12:00etan: Espainiako Minimotozen txapelketa, Kartingean.

12:30ean: Herri mailako plater hausketak.

16:00etan: Mus txapelketa.

17:00etan: Pelota txapelketako finala.

17:00etan: Euskadiko Ligako sokatira txapelketa, lurginean.

18:00etan: Probintzia mailako bola txapelketa.

20:00etan: Arkume txuletan parillakada.

23:00etan: Su artifizialak.

24:00etan: Rock jaialdia: 'Berri txarrak' eta 'Flujo'.



Ekainak 21, igandea:

9:00etan: Espainiako Minimotozen txapelketa, Kartingean.

11:00etan: Probintzia mailako plater hausketak.

13:00etan: Meza.

16:00etan: Probintzia mailako plater hausketak.

17:00etan: Artzain txakur lehiaketa.

19:00etan: Asto lasterketa.

20:00etan: Kalejira buruhandi eta txistulariekin.

20:00etan: Tirri-Tarra fanfarrearen saioa.

23:00etan: Dantzaldia Etzakit taldearekin.

Ekainak 23, asteartea: haurren eguna:

10:00etan: Haur jokoak.

14:30etik 20:30era: Jolas parkea.

18:00etan: Marco Caroleiren eskutik 'Capocomico'.

19:00etan: Kalejira buruhandi eta txistulariekin.

19:30ean: Ohizko loreen bedekapena, Elizan.

20:00etan: San Joan zuhaitzaren igoketa.

22:30ean: San Joan sua: dantzariak, txalapartariak...

23:00etan: Kristina eta Amaia trikitilariak.

Ekainak 24, asteazkena: San Joan eguna:

9:00etan: Goizeresia, Lazkaoko txistulariekin.

11:00etan: Meza nagusia.

12:00etan: Udalbatzaren soka-dantza.

12:15ean: Hamaiketakoak, pilotalekuan.

13:00etan: Peñagarikano eta Agirre bertsolariak.

17:00etan: Herri mailako bola eta toka txapelketa.

18:15ean: Diaporama: Javier Fernandez 'Oihan tropikala', Bikarioetxean.

19:00etan: Herri-kirolak.

20:00etan: Sagardo dastaketa 'Xapre ta Zaharra' trikitilariak alaitua.

Egunero: Bikarioetxean, Javier Fernandez 'Naturaren atalak' argazki erakusketa. 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik- 21:00etara.

GARTXO JATETXEA

gosariak
hamaiketakoak
eguneroko menua

Aukera haundia, 35 plater

Industrialdea, 118

943 88 13 09

OLABERRIA

ARRIETA

*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

JATETXEA

943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

- * Sagardoa txotxetik urte guztian
- * Bataio, jaunartze, lagunarteko eta negozio bazkariak
- * Karta

Aurrez deitzea komeni da

Tfnoa.: 943 88 20 49
OLABERRIA

AIARZA KARROZERIA



EDOZEIN AUTO EDO
IBILGAILUREN
KARROZERIA, TXAPA
ETA PINTURA

lurre lantegialdea, 10

943 88 05 65 OLABERRIA



*Festa
onak pa-
sa!*

EDARITEGIA

943 88 95 60

OLABERRIA

OGEI S. A. L.

Eraikuntza metalikoak

- ✓ Hormigoneren fabrikazioa
- ✓ Hormigonatu hornitegiak
- ✓ Fatxadetako jasogailuak

943 88 52 50 - 4
lurre Auzoa, z/g
OLABERRIA
12 P.K. BEASAIN

Aintzinako lana kirol bihurtuz: herri-kirolak

Goierrri mailan orain dela bizpahiru urte herri-kirolak indar handia hartu zuen eta herriko festetan ohikoa zen herri-kirol lehia ikustea. Gure herrian ere urtero-urtero daukagu aukera hori. Olaberriko herri-kirol taldeari esker. Honela gure arbasoek lan egiteko ohitura hori kirol bihurtu zaigu. Kirol honen nondik-norakoak hobeto ezagutzeko Xabier Lasa eta Asier Mujikarekin hitz egin dugu.

Herri-kirol taldea orain dela 8 urte hasi zen saioak egiten. "Olaberri mailan duela 7 urte egin genuen herri-kirol saioa festetan. Herriko gazteak bildu eta egun hartan bizitako esperientzia gustatuta hasi ginen. Talde bezala funtzionatzen, ordea, 1991. urtean hasi ginen, San Joan jai batzutan, harren ondoren beste herri batzuetako deia izan genuen", diote taldeki-deek. Nahiz kirol bakoitzak bere lege propioak izan, herri-kirol saio batean sartzen diren kirol motak ez daude zehaztuak, "gure asmoa herri-kirol ezagunentxoena denak saio batean ikusteko



Asier Mujika, Xabier Lasa, Aitor Urkiola, Garikoitz Arrieta, Imanol Aran eta Artzeiz Mujika duela urte pare bat.

jendeari aukera emateko bidea jartzea da. Horretarako, proba bakoitzetik hiru bat minutuko lana, lau aldiz errepikatzen dugu. Bertan, normalean sartzen ditugun probak hauek dira: aizkora, trontza, txingak, koskolak, korrika eta harri jasotzea".

Partaideak

Gaur egun taldea 4 partaideek osatzen dute: Artzeiz Mujika, Garikoitz Arrieta, Xabier Lasa eta Asier Mujika. Bestalde, Aitor Urkiola eta Imanol Aranek ere laguntza eskaintzen die hauek behar dutenean. Korrika eta koskol apustuan Gari eta Artzeiz aritzen dira, eta aizkora eta trontzan Xabier eta Asier.

Entrenamentua egiteko modua aldatu egin dute, "tarteka egin izan ditugu taldekako entrenamentuak, hasieran gehiago egiten genituen, baina orain, norbe-

ra bakarka prestatzen da, trontzan izan ezik. Prestakuntza fisikoari dagokionez, esfortzu oso luzeak ez ditugu egiten baina lanean ari zaren garaian gogorra izaten da. Denbora horretan dugun guztia ematen dugu eta horri erantzuteko ondo prestatuta egon behar izaten dugu", diote kirolariek.

Urtean gutxi gora-behera 10 saio egiten dituzte eta aurreko oraingoz 3 egin dituzte, hala ere saio guztiak bata bestearen atzetik izaten dituztela diote, "askotan bi hilabete ezer egin gabe egoten gara eta gero, hiru egunetan lau saio egiten ditugu. Hori festen arabera izaten da eta Goierri mailan hauek oso pilatuta daude".

Erreminta ezberdinak lortzeko erakustaldietan ateratako diruaz baliatzen dira. Orain adibidez, Australiatik ekarritako trontza

bat dute, "trontzak hementxo baserrietan galdezka lortu genituen hasiera batean, orduan, ez zen horren besteko gastua izan, baina aizkorak gure poltsikotik erosi genituen. Baina erakustaldiak eginez, kontutan izanda hor gastu bat geneukala, lorturiko diruarekin segituan amortizatu genuen. Gure helburua ez da dirua ateratzea, ateratako diruarekin erremintak ordaintzen saiatzen gara eta handik aurrera ez zaigu ezer asko geratzen. Bestalde, Olaberri mailan udalak duen jarrera zoriondu nahi dugu, ikaragarri laguntzen digu, zerbait behar dugun momentuan oso-oso ondo erantzun digu".

Kirol hauek orain dela urte batzuk izandako gora-kadak behera egin duelakoa bat datoz, "bai ikusle eta bai kirolarien artean, maila jaitxi egin dela esan daiteke", diote Mujikak eta Lasak. Aurtengo festetako San Joan egunean egingo dute beraien erakustaldia, bertan herriko lau kirolariek gain, Arriarango Iñaki Azurmen-di aizkolaria eta Xabier Orbegozo 'Arria V.' arituko dira lehian eta hiru hiruren kontrako saioa ikusteko aukera izango da. Azkenik, aipatu, Asier eta Xabier, uztailean Gipuzkoako Trontza txapelketan ariko direla.

Nagore Goiburu

INYELEC

MoviLine

MoviStar

Banatzale ofiziala

943 16 07 85

lurre Auzoa

OLABERRIA

CAFETERIA
JATETXEA

* Bankete, ezkontza, despedida eta ospakizunetarako eskatu aurrekontuak.

* Asteburuetako menuak.

Larunbatetan afal ostean musika izaten da

Jai zoriontsuak igaro ditzazuela!

Merkatal zentrua 943 16 02 15 OLABERRIA

Lore bedeinkatzea, bizirik dirauen ohitura

San Joan bezperan sua izaten da gaur egun herri gehienetan mantentzen den erritua. Baina badira San Joan egunarekin lotutako beste ohitura batzuek ere: larruazaleko gaitasunak sendatu edo arintzearen, iturri jakin bateko ura edatea edo haren uraz garbitzea da, edota San Joan eguneko ihintzak bustitako belardi eta soroetan oinutsik ibiltzea; egun horretan santuari eskainitako landareak edo fruituak (lizar-adar, artoa, garia, udareak, iratzea, loreak, eta abar), etxe atzera eramaten dira edo atarian zintzilikatzen dira (zenbait tokitan, zati bat ekaitza dagoenean erretzeko gordetzea tradizioa ere gorde dute).

Olaberrian, hiru ohitura mantentzen dira oraindik ere: San Joan sua, makalaren altxatzea eta lore eta ba-



Iaz loreak bedeinkatzea joan ziren olaberritarrak.

razkien bedeinkatzea. Azken ohitura hau, ez da herri askotan mantentzen. Olaberrian, gaur egun, indar gutxi xeago badu ere, bizirik dirau oraindik. Tradizioaren arabera, duela urte batzuk, loreak eta barazkiak bedeinkatzeaz gain, baserri guztietara joaten zen herriko apaizak banan-banan soro guztiak bedeinkatzeko. Gaur egun ohitura hau galdua dago.

San Joan bezperan, batik bat gazte jendeak, inguruko loreak bildu, sortatxoak egin eta elizara eramaten zituen, fruitu eta barazkiekin batera bedeinkatzera. Gaur egun ere eramaten dituzte, nahiz eta gutxiago izan. Ondoren lore sorta hauek etxera eramane eta ganbaran gordetzen zituzten, urtean zehar izaten ziren ekaitz egunetan, uztak zaintzeko helburuarekin,

sorta hauen zatitxoak, sutara boteaz. Gaur egun ohitura hau galdu egin da, eta lore-sorta honen funtzioa ezerezan geratu da.

Sua eta zuhaitza

Lora bedeinkatzeaz gain, ohiko sua eta makal altxatzea ere egiten da San Joan bezpera honetan. Guztiak ere, eguzkiari eskainitako festaren barruan, udako solstizioa iragarritz.

Garai batean baserri bakoitzak bere sua pizten bazuen ere, gaur egun plazan egin ohi da. Dantzariak, txalapartariak... izaten dira suaren inguruan, gau berezi honen magia areagotuz.

Makal zuhaitza altxatzea, hiru ekitaldietan, bigarrena izaten da. Udaletxe aurrean makal luze eta leun bat altxatzen da, puntan ikurrina duela.

INIAUSTI
KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
943 88 43 01 OLABERRIA



JELASA S.L.

LANTEGI
HORNIGAIK

943 88 09 60
943 88 17 43
Faxa: 943 88 69 05
201 Industrialdea, 6. pab.
OLABERRIA
97 posta kutxa
BEASAIN



INDUSTRIAS LANDU
KOOP. E.

PREZISIOKO MEKANIKA OROKORRA

943 88 21 52 - 943 88 61 94 95 posta kutxa BEASAN
Faxa: 943 88 99 10 6. Industrialdea, lurre auzoa OLABERRIA

IRUROK 
OPEL 



San Joan zorionsuak denoi!

N-1 errep. Madrid-Irun
943 88 51 50
OLABERRIA



IURRE

AUTO-ZERBITZU GELTOKIA
24 ORDUKO ZERBITZUA

943 88 01 61 lurre auzoa **OLABERRIA**

Euskal Herriko Dantza Askatuko txapelketa, ekainaren 20an eta 21ean

Halaxe da bai. XXII. Euskal Herriko Dantza Askatuko txapelketa bi egunetan jokatu da: bihar, larunbata, ekainak 20, arratsaldeko 18:00etan, Baratz pilotalekuan, final aurrekoa izango da; finala, berriz, igandean, ekainak 21, jokatu da, leku eta ordu berean. Bi emanaldiak ETB-1ek eskainiko ditu, diferituan, Karmentu Etxeberria alkateak aurreratu digunez.

Finalera 10 bikote onenak eta herrialde bakoitzeko



ordezkari bakoitzeko ordezkari bana pasatzen dira, 12 guztira. Era honetan, aurtan ere lurraldetasuna edukiko omen dute kontutan, finaleko bikoteak osatzeko garaian. Iaz 27 bikote hartu zuten parte. 24 gipuzkoarrak ziren, 2 bizkaitarrak eta bat nafarra. Antolatzaileen

esanetan, aurtan ere 26-28 bikote espero dira.

Arin-arina eta fandango piezak dantzatu behar izaten dituzte dantzariak. Hanka puntta, salto, eskuak, pausoak, erritmoa... neurtezarekin batera, azken urteetan bezala, janzkera ere hartuko da kontuan. Final

aurrekoan, desfile modukoa egingo da. Bitartean, aurrekezelek, bikote bakoitzaren jantzien ezaugarriak eta nondik norakoak adierazten ditu. Euskal janzkeraren inguruan egin diren ikerketak gizarteratzerik lortu ez dutenez, dantza txapelketetan aprobetxatzen da euskal jantzien ondarea ezagutzera emateko. Gero eta garrantzia gehiago ematen zaio, beraz, janzkerari eta gero eta janzkera bitxiagoak eta ederragoak ikusten dira. ETBk eta Donostiako KTEk sari bereziak emango dituzte. Gainerakoan, beste sariak hauek ere ematen dira: lehenengo aldiz aurkeztu diren artean ongien sailkatzen direnentzat; eta bestea bikote gazteenarentzat.

SEGURAKO UDALA

Agurra



Segurar guztioi, agur t'erdi!

GURE SAN JOAN JAIK laster ditugunez gero, aurtan ere, ohore handiz, herritar guztiok agurtu eta denok kuttunenak ditugun festa handietara gonbidatu nahi zaituztet bihotzez.

San Joanak beharrezkoak ditugu eguneroko buruhauste eta lan sakonetaz ahaztu eta elkarrekin gure festa egunak ospatzeko. Horixe da deseatzten dudana: hain maite ditugun festa hauek, giro onean, adiskidetasunez eta alaitasunean igaro ditzagula, betiko Segurar herrikoitasunaren adierazgarri gisa. Horrexegatik, har ezazute nere eskerrik beroenak eta nola ez ba! FESTA BATZORDEKO kideei ere, geure neurriari iritsi gintezkeen festan egitaraua antolatzen saiatu zaretelako; zuei ZORION ETA ESKERRONAK!

Gure deseo alaitsuak eta festa giroa iritsi daitezela gurekin ospatu ezina duzuenon bihotzetaraino.

DENOI, ZORION BEROENAKI

Zuen Alkate
Karmentu Etxeberria

argitaratzen duen enpresa argitaratzen

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

Segurako San Joan jaia

Ekainak 19, ostirala:

23:00etan: Laiotz taldearekin dantzaldia, txosna eta tabernariak antolatuta.

Ekainak 20, larunbata:

9:30ean: Arrantza txapelketa.

10:00etan: Kalejira herriko txistulariekin.

10:00etan eta 18:00etan: Gipuzkoako bola eta toka txapelketa.

16:30ean: XLI. San Joan txirrindulari proba.

18:00etan: Euskadiko XXII. Dantza txapelketaren final aurrekoa, pilotalekuan.

Ondoren: Segurako Txistularien alardea, 'Segurako alborada' ren doinuaz.

23:00etan: Gaubela taldearekin dantzaldia.

Ekainak 21, igandea:

10:00etan: Kalejira herriko txistulariekin.

11:30etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara: Tren berezia, Segura eta inguruetak ibilaldia egiteko.

13:00etan: Ardi mozketak, makinaz eta eskuz.

18:00etan: Euskadiko XXII. Dantza txapelketaren finala, pilotalekuan.



19:30ean: Kale-antzerkia: Marco Carolei-rekin.

20:00etan: Buruhandiak eta erraldoiak.

20:30etik 2:00ak arte: Dantzaldia Eganekin.

Ekainak 23, asteartea:

18:00etan: Umeen danborrada Kilkir txarangarekin.

20:00etan: Naroa Enekotegi eta Zegamako Orkatz abesbatza, Parrokian.

23:00etan: San Joan sua, arbola bedeinkatzea, kanpai bueltakoak eta dantzariak.

Ondoren eta goizalderarte: Dantzaldia plazan Kilkir txarangarekin.

Ekainak 24, asteazkena:

9:30ean: Segurako Alborda Kriseilu txistu taldeak.

10:15ean: Alkatea eta zinegotziak elizara joango dira 'Alkate soinuaren' doinuaz.

10:30ean: San Joanen Prozesioa eta meza nagusia.

Ondoren: Ohiko hamaiketako udaletxean eta ondoren San Joan Egoitzako lagunei bixitaldia.

11:30etik 14:00etara eta 17:00etik 20:00etara: 'Pista librea' pilotalekuan.

12:00etan: Kalejira Oria txarangarekin.

12:30ean: Herriko plazan Iparraldeko herri kirolak.

Ondoren: Egaña eta Lizaso bertsolariak.

18:30ean: Profesional mailako pilota partiduak.

18:30ean: Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.

20:30ean: Mozorroen kalejira, Oria txarangarekin.

23:00etan: Kiñu taldearekin dantzaldia.

Ekainak 25, osteguna:

10:00etan: Kalejira herriko txistulariekin.

11:30ean: Toka, igel eta botekoak Atsedenen. Ondoren 'mokadutxo' jubilatu eta pentsionistentzako.

12:00etan: Toka txapelketa herrikoia.

12:00etan: Koadrilen futbito txapelketaren finala.

14:30ean: Koadrilen bazkaria eta ondoren jokoak.

18:30ean: Pilota partiduak, pilotalekuan.

20:00etan: Poteo elegantea.

20:30ean: Sagardo dastaketa.

23:00etan: Dantzaldia Urgabe taldearekin.

Ondoren: Festazale guztiekin kalejira San Joan jaiei amaiera emanez.

Oharra: Ekainaren 19tik 25era arte, Zurbano etxean, herriko emakumeen eta Laiotz herri-eskolako ikasleen eskularen erakusketa egongo da.

Frutak barazkiak
amatriain
San Joan zoriontsuak denoi!
Zurbano kalea ☎ 943 80 11 77
SEGURA

ELORRIPE
edarteia
Festa onak igaro ditazuela!
☎ 943 80 10 02 **SEGURA**

Giro atsegina eta pintxo bereziak

IMAZ Jatetxea
◆ Eguneroko bazkariak
◆ Karta
Festa zoriontsuak igaro!
Kale Nagusia, 27 ☎ 943 80 10 25 **SEGURA**

ETXETRISNAT
Juan Migel Larrea
ELEKTRIZITATEA BURDINDEGIA FRUITUAK
Jai zoriontsuak denoi!
☎ 80 11 74 Unzurruzaga, 5
Etxekoa: 80 01 53 **SEGURA**

segura

Egitaraua osatuz

● **Txosna gunea:** frontoi zaharrean 2 txosna jarriko dira aurten, Gazte Asanbladakoa eta Jarraikoa. Ekainaren 19rako herri afaria antolatu dute bertan. Ekainaren 25ean, berriz, kontzertua: Geroñ eta Schütz ormaiztegiarrak izango dira gaueko 11,30etatik aurrera.

● **Bola eta toka:** gazte-entzako probak goizeko 10etatik 12etara izango dira. Helduentzat 10etatik 12etara eta arratsaldeko 6etatik 7etara. Lehenengo herritarrentzat ere sariak banatuko dira.

● **Txirrindulari proba:** Segurako Txirrindulari Elkartek antolatuta, 23 urtez azpikoek eta elite mailakoek parte hartuta XLI. San

Joan proba korrituko da ekainaren 20an. Arratsaldeko 4,30etan plazatik irtenda, 7,25 alderako espero dira helmugan. 118 Km izango dituzte eta helmugara iritsi aurretik Liernia igo beharko dute Ormaiztegi aldetik. 120ren bat txirrindularik parte hartuko dute, horien artean, Arkaitz Sodupe, Unai Paredes eta Iñigo Zabala herritarrak.

● **Txistulari guztien kalejira:** inoiz txistua jo duten segurarrak aurten ere elkartuko dira. Ekainaren 21ean, Dantza Txapelketaren ondoren egingo dute kalejira. Iazkoan 'Elizondo' jo zuten eta aurten 'Segurako alborada' dira eskaintzekoak. Kalejira plazan amaituko da alboradaren otoitza jota.

● **Umeen danborrada:** ekainaren 23ko danborradan 2tik 12ra bitarteko 100en bat neska-mutikok parte hartuko dute Gasteizko 'Kilkir' txaranga lagun dutela. Aurtengorako nobedade nagusia, karrozan ipotxez jantzita aterako diren 2 urteko umeena da.

● **Pelota partiduak:** San Joan egunean, 1go eta 2. mailako profesionalen partiduak jokatu dira. 1go mailakoa, asteburu honetan Asegarceko txapelketatik kanpo geratzen diren artekoa izango da. San Joan bigarrean, afizionatuen partiduak: Berraondo-Jon Ander Hombre, Otaegi-Ibon Etxeberriaren aurka lehenengoa eta Atxa-Ruiz, Saralegi-Gastesiren kontra bigarrena.

● **Koadrila eguna:** koadrilen arteko futbito txapelketaren kanporaketak ekainaren 19an, 17:00etan izango dira eta finala 25ean eguerdiko 12etan; biak Baratzte pelotalekuaren ondoran. Koadrilen bazkaria (marmitakoa, oilaskoa eta jogurta) plazan, 1.000 pezetakostako da eta txartelak tabernetan jarriko dira salgai. Ondoren trikitixa izango da eta jokuak ere bai.

● **Erakusketa:** herriko emakumeak eta Laiotz herri eskolako ikasleek urtean zehar egin dituzten eskulanean erakusketa egunero egongo da zabalik festetan, eguerdiko 12etatik 2etara eta arratsaldeko 7etatik 9etara.

SANTA BARBARA

karrozategia

Juan Mari Oiarbide

Kale Nagusia ☎ 80 11 60

SEGURA

KARMELE

ILEA PINDEGIA EDERGINTZA
Festa zoriontsuak denoi!

Lardizabal, 27 ☎ 943 80 04 45

SEGURA

JUAN KAR

- * Zoruen lixatu eta barnizadurak hautsik gabe
- * Parket ezartzeak

☎ 943 73 19 45 - 939 96 28 50
San Inazio, 42-2. ezk. **LEGAZPI**

KALITATEKO
EUSKAL OKELA

EROSLE GOIKO

- Ordiziako Gazta Txapelketako irabazlearen gazta
- Etxeko arkumeak
- Bertako haragia

Zurbano, 8 ☎ 943 800326

SEGURA



OTATZA SAGARDOTEGIA

Uda garaian erretegi moduan ere zabalik, terraza eta guzti

Zatoz probatzera!

Astegunetan eguerdietan itxita, astelehenetik asteazkenera itxita, hauetan enkarguz irekitzen da.

☎ 943 80 17 57 **ZERAIN**

ANTONKALE

EDARITEGIA

S E G U R A

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu!

BEASAIN

San Joan eta San Pedro jaiak



Uda hasiera hau jaiez betetadator. San Joan bezperan, arratsaldean hasiko da festa, erraldoi eta buruhandiekin. 22:30ean, Barrendain plazan, suaren inguruan, Ostadar dantza taldeko dantzariak arituko dira dantzatzen. Eta jarraian, 23:00ak aldera, dantzaldia hasiko da.

San Pedroak Arriaranen

Azken bi urteetan San Pedro jaiak Arriaranen eta Ezkiaga auzoan izan baditugu ere, aurten, Arriaranen barririk izango dira. Txoznak egongo direla aurreratu digute antolatzaileek eta presatatu duten egitaraua duzue jarraian:

Ekainak 26, ostirala:

20:00etan: Poteo herrikoia.
21:00etan: Gazte afaria.
Ondoren: Benetan eta Alaitz eta Maider taldeen kontzertua.

Ekainak 27, larunbata:

11:00etan: Suziri eta buruhandiak. **18:00etan:** Sagardo dastaketa. **21:00etan:** Txahala burruntzian erreta. **00:00etan:** Etzakit taldearen kontzertua.

Ekainak 28, igandea:

9:00etan: Suziri eta buruhandiak. **10:00etan:** Diana. **12:30ean:** Meza nagusia. **13:00etan:** Lucha herriko agureentzat. **18:00etan:** Pilota partiduak. Kadeteetan: Amundarain-Aranburu Razkin-Iraetaren aurka; afizionatueta: Saralegi-Sukia Castellanos-Gastegiren aurka.

Ekainak 29, astelehena:

11:00etan: Suziri eta buruhandiak. **12:30ean:** Meza nagusia. **13:00etan:** Herriko agure zaharrenari omenaldia. **14:00etan:** Herri bazkaria, Egaña eta Peñagarikano bertsolariekin. **17:00etan:** Mus eta puntu txapelketa.

UEU-rako subentzioak

UEUk (Udako Euskal Unibertsitateak) antolatutako udako euskarazko ikastaroen berri jakin nahi duen edonork, Udaletxeko Harrera zerbitzuan aurki dezake informazioa edota zehatzagoa nahi izanez gero, Udaleko Euskara-zerbitzuan 943-805251 telefonora deituta. Udalak ikastaro horietarako diru-laguntzak ematen ditu. Laguntza horiek jasotzeko, UEUko ikastaroetan matrikulatu behar da eta uztailearen 10era bitartean eskaerak udaletxean aurkeztu, horretarako dauden inprimakiak beteta.

Euskara ikasleei diru-laguntzak

1997ko irailetik 1998ko abuztura bitartean, edozein mailatako Euskalduntze-Alfabetatze Euskara-ikasketak euskaltegiren batean (Udal Euskaltegietan salbu) egin dituzten 16 urtez goitiko ikasle beasaindarrak, diru-laguntza eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte udaletxeko Harrera

bulegoan, azaroaren 30era bitartean. Laguntzak, ondorengoak izango dira: % 50a langabetu txartela ekartzen dutenentzat; eta % 33,33a gainerako guztientzat.

Eskatzaileak, klase-orduen % 80etara joan izana frogatu beharko du eta Beasainen erroldatua egon. Agiri hauek aurkeztu behar dira: matrikula-ordaingariaren fotokopia; euskaltegiko agiria, klase-orduak, asistentzi orduak eta ikasketak-maila adieraziz; Naren fotokopia; langabetu txartelaren fotokopia, egoterra horretan daudenek; eta kontu korronte zenbakia.

I. Igartza beka-saria

35 urtetik beherakoek eta bi liburu baino gehiago argitaratu ez dituztenek, gutxienez ere 75 bat orrialde dituen eleberri edo ipuin-bildumaren bat idazteko beren literatur proiektuak aurkeztuz ditzakete ekainaren 30era bitartean, Udaleko Euskara-zerbitzura. Bekaren ebazpena irailaren 5erako emango da eta idazteko urtebete izango du irabazleak.



BILTEGIRATZE SISTEMAK

*San Pedro zoriak
arriandakoi*

Salabatore Auzoa, 17
82 p. k.
BEASAIN

☎ 943 88 30 15
☎ 943 88 24 40
Faxa: 88 97 41

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarateko, pintxoak



☎ 943 88 20 07
Nagusia, 27 BEASAIN



ARRIARAN karrozeriak

Salabatore Auzoa- Izarraitz, 4
☎ 943 88 70 91
BEASAIN

Zure esku jartzen ditu:

- ✓ Txapa eta pintura-lanetako azken aurrerapenak.
- ✓ Ibilgailu industrialak pintatzeko labe-kabina.
- ✓ Bankadetan egindako konponketen garantia.
- ✓ Garabi zerbitzu iraunkorra, tfnoa: 88 32 53
- ✓ Aurrekontuak egiten ditugu inongo konpromezurik gabe.

ZATOK ETA IKUS EZAZU!

ZEGAMA

Tobera Musika eskolan matrikula zabalik

Tobera Musika eskolak ekainaren 25-26an jasoko ditu datorren urterako matrikula paperak, Kultur etxean, 5etatik 7etara. Seguran ekainaren 29 eta 30an jasoko dira, 5etatik 7etara.

Tobera Musika eskola egun Zegama, Segura eta Zerainen arteko musika proiektu garrantzitsua da, izan ere, elkarte honek herri hauetako haur nahiz helduei herrian bertan musika hezkuntza eta instrumentu ugari ikasteko aukera ematen baitie. Duela urte gutxira arte, herri hauetako haurrek Beasaina jo behar izaten zuten Musika eskolaren bila musika hezkuntza ikas zezaten. Musika ikasteaz gain, kontzertu interesgarriak eskaintzen dituzte herri hauetan kurtsoan zehar ikasleek egin duten lana azalduz.

San Adriango eguna

Datorren igandean, ekainak 21, goizeko 11tan meza



Giro ederra Arantzazurako peregrinazioan

Urtero bezala zegamar ugarik hartu zuen Arantzazurako bidia. Giroari eusteko beharrezkoa izaten da salda beroa, otarteko on bat eta kafe egin berria eta aurten ere ez dugu horrelakoak prestatzeko bolondres faltarik izan.

Urteroko 'sukaldariak' goizean goiz sua piztu eta jende multzoa gerturatzerako oilo salda ederra prest izan dute, eta ondoren kafearen prestaketari ekiten diote. Otartekoak, berriaz, udalak jartzen baditu ere, bertaraino eramateko behar-beharrezkoak izaten dira asto pareta astasaski hornituekin, eta nola ez astazain adituak ere. Ondoko argazkian dituzue Joxe Dinti eta Joxe Arantzelaiondo astazain lanetan.

izango dugu San Adriango ermitan. Ondoren udalak hamaiketako eskainiko die bertaratzeko direnei.

Jose Antonio

Pagolaren hitzaldia

Astelehenean, ekainak 22, Jose Antonio Pagolak hitzaldia emango du Kultur etxean, 20:00etan. Gaia,

'Eliza eredua, Parroki eredua eta Parrokiko Pastoral Kontseiluaren ezaugarriak' izango da.

Haur abesbatzak

Datorren ekainaren 27an, Haur Abesbatzen II. jaialdia burutuko da San Martin elizan, 18:00etan. Bertan parte hartuko duten abesbatzak, Zegamako Orkatz-Txiki, Lasarteko Alboka Txiki eta Aguraingo Eguzki-Lore abesbatzak izango dira.

Amezti Mendi

elkartearen oharra

Datorren ekainaren 28an, sortu berri den Amezti Mendi elkartearen lehen irteera burutuko da. Goizeko 8,30etan plazatik irten eta Izarra, Sadar, Bidarte, Herriotza eta Ameztitik barrena Urretanera joango dira. Handik kalera jaitsi eta po-teo moduko bat egingo da.

Edurne Albizu

LEGORRETA

Ikasturte amaiera oparoa

Ikasturteari amaiera emateko, gaur, ostirala, ekainak 19, arratsaldeko 5etan, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia izango da herriko pilotalekuan.

Eskulan erakusketa

Asteburu honetan, Ugara Herri ikastetxeko haurrek egindako eskulanen erakusketa egongo da ikusgai Kultur etxean.

Kale-antzerkia

Bihar, ekainak 20, arratsaldeko 7,30etan, Phanta Rhei antzerki taldearen 'Anbotoko Dama' emanaldia izango da Kale Nagusian.

San Joan gaua

San Joan gaua ospatzeko, udalak zenbait ekintza antolatu ditu: Arratsaldeko 7,30etan, Jeff Bradley Kanadako antzerkilariak 'Impossibilities' lana antzeztuko du Kale Nagusian. 8etan, trikitiaren doinuak alaiturik zahagi ardoa izango da herriko plazan. Eta 9etan, San Joan sua piztuko da plazan bertan, iaz bezala, inork aldeztu aurretik sua ematen ez badio behintzat.

Txirrindu frogia

Ekainaren 28an, arratsaldeko 4etan, Bilkoin elkartearen 25. urteurrenko ospa-

kizunen artean eta elkarteak berak antolatuta, junior mailako Euskadiko Txirrin-dulari txapelketa jokatu da.

Udaleku irekiak

Urtero bezala, udalak udaleku irekiak antolatu ditu uztailearen 1etik 17ra bitartean. Udalekuak astelehene-tik ostiralera izango dira, goizeko 10etatik eguerdiko 1era. Haurren izena emateko azken eguna ekainaren 26a izango da. Udalekuetako begiralea izan nahi duenak, aldiz, ekainaren 19a baino lehen eman beharko du izena.

Korputz eguna

Bilkoin ekarteak antolatutako XX. krosean honako emaitza hauek izan ziren: 8 urtetik beherako nesketan, Miriam Garmendiak irabazi zuen; 8 urtetik beherako mutiletan, Ibet Fernandezek. 9-11 urte bitarteko nesketan, Agurne Sanchez izan zen azkarrena eta mutiletan, Unai Uribe. 15 urtetik gorako partaideen artean ez zen emakumezkorik irten. Gizonetakoetan Iker Manso izan zen irabazle. IX. Ardo Dastatze txapelketan Arantxaneko Patxi nagusitu zen.

Josune Amondarain

SEGURA

Aldaize lan taldea

Ekainaren 17an egin zuten euren aurkezpen ofiziala. Bertan, orain 2 hilabete banatu zituzten inkesten emaitzen berri ere eman zuten. San Joan festetan kultur etxean ikusgai egongo den erakusketa antolatu dute: plan espezialean oinarritutako herriaren maketa nahiz Segura eta Idiazabal herrien bilakaera konpara daitezkeen argazki muntaia. Talde beraren inizatibaz, ekainaren 21ean ardien ile mozketak eta koadrila egunean sagardoa eta txorixo egosia banatuko dituzte.

Igerilekua

San Joanak ondoren irekiko da igerilekua. Pizsinaren zorua berri eta margotu egin da. Abonuen prezioak: 3 urtetik 7ra 1.715 pta. 8tik 15era 2.035 pta. 16tik aurrera 3.430 pta. Abonu familiarrak ere bai. Udaletxean edo igerilekuan bertan egin daitezke.

Kirol jarduerak

Lazkaoko Kemen kirol eta osasun zerbitzuak antolatuta, 3tik 12 urte arteko haurrentzat, tenisean, mendi-bizikletan eta mendi jolasetan aritzeko aukera dago. Jarduerak, ekainaren 29tik uztailaren 17ra iraungo dute, goizeko 10etatik 1era, Seguran bertan. Izenak udaletxean eman behar dira ekainaren 26a baino lehen. Hamabostaldia 5.500 pezeta kostatuko da.

'Preso taldea'

Herrian sortu berri den 'Preso taldea', presoengain inguruko informazioarekin, hilabete-karia kaleratzen hasi da. Aleak, zinegotzi guztiei banatuko zaizkie eta leku publiko guztietan jarriko dira.

Elorri zuri eta lizar adarren errittoa

Udako soslitzioaren erritorik esanguratsuenak bada ere, badira urarekin edo landareekin zerikusia duten beste hainbat ere.

Segura bezalako herri landatarretan eusten zaio oraindik, San Joan egunez, baserri eta etxeetako sarrera nagusien bi aldeetan elorri adar bana jartzearen ohiturari. Hauek, San Joan egun berean hartu behar izaten omen ziren eguzkia atera baino lehen. Adarraren hasiera zuritu egin ohi da, bertan zulotxo bat eginda beste adar pusketa batekin gurutzetxo bat osatzeko. Atari askotan larrosa sorta txikiz ere apaintzen dituzte. Soro eta baratzen, berriz, lizar



Inontxo eta inortxok ere iragarri gabe, ohiturak edo sentimenduak eraginda, etxe atari bat bera ere ez da geratuko elorri adarrik jarri gabe.

gurutzeak ere jarri izan dira. Herriko zaharrenek euren aurrekoei entzuna zieten, adar berriak jarri aurretik aurreko urtekoak bildu eta San Joan suan erretzen omen ziren. Honi guztiari,

etxe, baserri eta landak ekaitzetatik babesteko ahalmena egotzi izan zaio. Gainerako zuhaitzek tximista erakarri eta elorriek zein lizarrek urrunarazi egiten zituztenaren ustea omen zen.

Ekainaren 20rako Presoen eguna antolatu dute: arratsaldeko 7etan firma bilteta plazan. 8etan, enkartelaturik poteoa. Goizeko 1ean, manifestazioa 'Presoak Euskal Herrira' lelopean.

Labur-labur

● **Zozketak:** ekainaren 12ko futboleko errifaren zenbaki saritua 3.100 izan zen. Segurako Dendari Elkartek ekainaren 15ean egindako zozketan 30.000 pezetako erosketa txartela Sor Asun Huete Ospitaleko superiorari tokatu zitzaion. 20.000ko 2.a, berriz, Antonkaleneko Karnele Ezeizari.

● **Adrian Ormazabal,** apaiz herritarra hil zela urtebete dela, San Vitorreko apaizgoak 55 orrialdeko liburuskakaleratu du beraren biografiak.

● **Obrak Komentuan:** hezetasunaren eraginez kalte-tua zegoen elizako zoruaren oholdura altxatu eta azpi guztia tratatzen ari dira. Sa-

neatua amaitzean, oholdura bera jarriko diote zoruari eta marmol berria erdiko pasilolari. Lanak, San Joanak alde-dera dira bukatzekoak. Bitarteko mezak goiko solastegi edo lokutorioan ari dira ematen.

● **Tobera Musika Eskola-koek,** ekainaren 16an eskaini zuten aterpetxean ikasturte amaierako kontzertua. 98-99 ikasturterako, hezkuntza musikalerako nahiz instrumentuetarako matrikula, ekainaren 29 eta 30ean egin behar da arratsaldeko 5etatik 7etara Musika Eskolan.

● **Txirrindularitza:** ekainaren 14an Seguran korritu zen jubenil mailako San Joan proba, Ciclos Beristain taldeko Mikel Aizpuruak irabazi zuen.

● **Bola:** ekainaren 14an eta 15ean Ereñozun jokatu zen bola saioetan 4. geratu zen sailkapen orokorrean Martxeliño Agirre.

● **Pelota:** Jon Ander Hombre ekainaren 16an zen Irun-

go 'Kurpil kirolak' txapelketan final laurdenak jokatzea Castellanosekin batera. Añorgako txapelketan, aurrelari berarekin, finalerdietako ligaskako lehen partidua ere irabazia du.

● **Toka:** ekainaren 20an sailkapeneko saioa eta 28an Gipuzkoako toka finala jokatuko dira Amara Zaharreko Easo plazan. Euskadiko txapelketarako sailkapeneko saioa ekainaren 21ean eta finala 28an izango dira Ezkion. Ordezkarri herritar bakarra Antonio Agirre izango da.

● **Maite Telleriak,** Ordiziako Txindoki Atletismo taldearekin, jubenil mailako Espainiako pisu jaurtiketa txapelketan parte hartuko du ekainaren 28an Huescako Monzonen.

● **Goierrri bailarako Gaisoen eguna** ospatuko da uztailaren 5ean Seguran. Informazio gehiago hurrengo alean.

Joseba Telleria

GABIRIA

Emakumezkoen ospakizuna giro onean



Joan zen igandean elkartu ziren Korta jatetxean herrian nahiz herritik kanpo bizi diren 40 emakume gabiriarrek urtero egin ohi duten lagun arteko eguna ospatzeko. Biltzeko asmo horri ekin ziotela jadanik badi-ra bederatziren bat urte eta urtetik urtera giro hobea izaten dutenez aurrera ere elkartzen jarraitzeko asmotan dira.

Mahaian lagun arteko so-lasaz eta bazkari ederraz gain, Gillermo soinu-jolea ere ahalegindu zen bere mu-sikaz giroa alaitzen eta amaieran omenaldi txiki bat egin zioten 1909. urtean Kale Barrenen jaio zen Fa-

kunda Urteaga andreari. 90 urte beteak izan arren bat baino gehiago harrituko zuen emakume horren biz-kortasunak eta alaitasunak.

Horrelako egunak ez dira gehiegi izaten urtean zehar eta oroitzapen eder horrek iraun dezala datorren urtera arte!

'Makilari': 9. alea

Urtebete inguru igaro da ja-danik Makilari aldizkaria-ren zortzigarren alea argita-ratu genuenetik eta berriro ere esku artean dugu herri-tarrontzat herritarrok egin ohi dugun aldizkaria. He-rrian bizi diren guztiek ja-danik eskuratu badute ere,

oraindik ere izango da he-rritik kanpo bizi den baka-rren bat eskuratu ez duena eta nahi izanez gero, udale-txera deitu besterik ez du eta bertan esango diote zer egin behar duen lortzeko. Esan beharrik ez dago al-dizkaria debalde banatzen dela herritarren artean, Udalak ordaintzen baitu.

Kale-antzerkia

Goiekik eta Udalak antola-tuta larunbat honetan 'Go-

loka Park' kale-antzerkia ikusi ahal izango dugu arratsaldeko 5etan herriko plazan.

Jaiak antolatzeko bilera

Ostiral honetan, ekainak 19, herriko jai nagusiak antola-tzen hasteko bilera egingo da Udal Liburutegian, arra-tsaldeko 8,30etan.

Gabino Murua



Lehenengo Jaunartzeak

Joan zen maiatzaren 31n ospatu ziren gure herrian Lehe-nengo Jaunartzeak eta aurtengo honetan argazkian dauden Beñat Maiz, Gorka Maiz, Iñigo Igarzabal eta Leire Murua gazteen txanda izan da.



KENDU S. Coop. Ltda.

**Ebaketa tresnetan
Europako kalitaterik onena
salneurri erabat konpetigarrietan**

**Industrialdea, z/g
SEGURA**

**☎ 943 80 13 40
Faxa: 943 80 19 05**

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

ORMAIZTEGI

San Joan ospakizunak

San Joan ingururako aurtengoan ere hainbat ekitaldi prestatu dira. Berauek atzo, ekainak 18, hasi, eta 24ra bitartean luzatuko dira.

Ekainak 19: Txindata Musika eskolako ikasleen kurtso bukaerako jaialdia, parroki aretoan, 19:00etan.

Ekainak 22: 16:30ean, herriko lorategien zaintza haurren eskutik. **18:30ean:** Arrate Leunda ipuin kontalariaren saioa, Kultur etxean. **20:00etan:** Josu Eizagirreren 'Iparralde: Xiberuatik Itsasora' ikusentzunezkoa, Kultur etxean.

Ekainak 23: Arratsaldean zehar, herriko txistularien kalejira, tantaiaren jartzea eta trikitilarien kalejira. **21:00etan:** Goierri mailan antolaturiko III. Kale ikuskizun zikloaren barneko ikuskizuna, Marco Caroleiren eskutik. **22:00etan:** San Joan sua.

Ekainak 24: 20:00etan:

'Gaua, ipuina eta zu...' Julia eta Irenen eskainiriko ipuin eta sketchak, Kultur etxean.

Haurrentzako udako kirol kanpaina

Uztailaren 6tik 17ra bitartean, udako oporrak kontutan izanik, 8 eta 14 urte bitarteko herriko haurrek kirola egiteko aukera izango dute. Bertako irakasleak soinetan lizentziatuak izango dira.

Haurrek 10 egunez, mota ezberdinetako kirolak egiteko aukera izango dute. Gainera azken bi egunetan, iaz bezala, Larraitzen ospatuko den akanpandan parte hartu ahal izango dute Goierriko beste hainbat herrietako haurrekin batera. Kirol kanpaina honetan parte hartu ahal izateko izenak uztailaren 2ra arte eman beharko dira eta haur bakoitzak 1.500 pezetako matrikula ordaindu beharko du. Egu-



7 haurrek hartu zuten lehenengo jaunartzea

Ekainaren 7an, herriko 7 haurrek hartu zuten lehenengo jaunartzea. Elizkizuna eguerdiko 12etan Ander Deunaren parrokiaren ospatu zen. Pozez gainezka izan ziren aldarera hurbildu ziren haur hauek, beraiek izan baitziren bertako lekuko garrantzitsuenak. Aurtengoan lekuko hori hartu zutenak 5 neska eta 2 mutil izan ziren: Estitxu Aierbe, Amaia Jaka, Eli Juantorena, Cristina de Carballo, Tamara Avila, Jon Izagirre eta Anjel Pelaez.

nez eguneko informazio zehatza udaletxean bertan izango duzue.

Musika eskolan matrikula zabalik

Datorren ikasturtean Txindata Musika eskolako ikasle izan nahi duten guztiei ma-

trikulak ondoren adierazten den egunetan zabalik egongo direla jakinarazi nahi zaie. Hain zuzen ere, ekainaren 24 eta 25ean, arratsaldeko 5etatik 7etara.

Aitziber Murua

ZERAIN

Aizpeako meategien zaharberrikuntza

Udala eta Zerain Dezagun Fundazioaren ahaleginez, Aizpeako Meategien zaharberrikuntza lanak aurrera doaz. Aste Santuaz geroztik Zeraina hurbiltzen direnei meatzegunea ikusteko aukera eskaintzen zaie.

Aizpeako meatzeguneko bisita Legazpi eta Ormaiztegiarekin lotuko dira laster. Zerainen burdina menditik nola ateratzen zen eta labee-tako kiskaltze prozesua, Legazpiko Mirandaolan olatan gauzatzen zen burdinaren eraldaketa eta Ormaiztegin burdinaren erabileraren adibide ederra den trenzubi zaharra erakutsiko dira.

Zaharberrikuntza lan hau Europako proiektu eredugarrien artean dago eta Frantziako Dordoinako Kontseilu Orokorra eta Greziako Xanthi hiriarekin batera burutzen ari den proiektua da. Frantziarrak proiektuaren buru izaki, aste honetan Zerainean izango ditugu zaharberrikuntza lanak eta aurrekontuak gainbegiratzeko.

Hitzaldiak

Jubilatuen Elkartek antolatuta hainbat hitzaldi izan dira maiatzetan eta ekainaren hasieran. 'Buru osasuntsua eta zahartzea', 'Buru gimnasia, buru sasoian man-

tentzea' eta 'Oroimenaren arazoak nola hobetu' gaiak jorratu dira Amagoia Murrumendiraz lazkaotar gerontologaren eskutik.

Indibaba ibilbidea

Zerain Dezagun Fundazioaren oharra: "Aurreko GOIERRITARRA batean Zerain, Tolosaldea, Uribe eta Busturialdeak osatzen duten ibilbide turistiko-gastronomiko honen inaugurazioa aipatu zen. Tartean sortu den gaizki ulerturen bat argitzeko, Ibilbidea Gipuzkoako eta Bizkaiko hiru eskualdeen ekimena dela eta Zerain bertan parte

hartzera gonbidatua izan dela esan behar da.

Zerain Dezagun Fundazioa Goierri honelako ekimen turistikoak sortu eta eskaintzeko beti prest izan da eta izango da, gure ustez Goierri guztiarentzako interesgarria bai litzateke honelako ekimenak sustatu eta bere onura eskualdeko herri guztietara zabaldu ahal izatea. Oraingo honetan ez bezala, ea hurrengoetan gure aldetik ahaleginak hobeto bideratu eta garapen arlo hau lantzeko Goierriko ekimen guztiak batzea lorzen den".

ORDIZIA

Hitzaro bazkide bila

Hitzaro Euskara Elkartea bazkide kanpaina berria egi-
ten ari da. Oraingo 171 baz-
kide 300 ingurura ailega-
tzeko asmotan dabiltza.
Oraindik denboraz zabiltza
eta 943-162366 telefonora
deitu besterik ez duzu.
GOIERRITARRAko aurreko
alean agertu zen txarteltxo
bete eta bidaliaz ere egin zin-
tezke bazkide. Bestalde, ka-
mixetak salgai jarri dituzte.

Eskuragarri daude Baga-Bi-
ga liburudenda eta baita la-
runbat honetan kalean jarrita
egongo diren mahaletan.

Asteburu oparoa

Horrelakoxea izan zen, bai,
joandako asteburua. Izan ere,
larunbatean mugezgainetiko
azokaren aitzakiarekin jen-
dez bete baitziren herriko ka-
leak. Giro polita sortu zen
eta euroekin tratuak egiten

ihardun zuen askok egun
osoz ospatu zen azoka berezi
honetan. Igande eguerdian,
berriz, Korputz eguna izaki,
Beti Argi musika bandakoe-
kin saio polita egin zuten he-
rriko enparantzan.

Futbola pil-pilean

XIX. Lagunarteko futbol
Txapelketan taldeen arteko
berdintasuna da nagusi. Izan
ere, 2. fasea amaitzeko ihar-
dunaldi bakarra geratzen den
honetan, 8 taldeek dituzte
oraindik aukerak finalerdie-
tara pasatzeko. Tximista, Ba-
dago, Harrike eta Wiskas
multzo batean eta Morapios,
Matxain, Orlegi eta Urbitarte
bestean.

San Fermin zozketa

Txartelak salgai daude aspal-
ditik Etxezarreta kalean da-
goen Txindoki Tabernan. Iaz
izandako arrakastaren ondore-
n aurrera jarraitu dute aipa-
tu tabernakoek eta aurten
errekor berri baten bila joan-
go dira. Zozketa San Jose
Zaharren egoitzaren aldekoa
izaten da eta uztailaren 7an
egingo da. Aurten txartelaren
salneurria bikoiztu egin da
(50 pezeta.).

Festetako ordutegia

Jai Nagusietan tabernari-
ek bete beharreko itxiera ordu-
tegia erabakita dauka dagoe-
neko udalak. Egutero goize-
ko 5,30etan itxi beharko di-
tuzte eta astelehenean, koa-
drila egunean, berriz, goizal-
deko 5etan.

Otegi-Ėneako jaiak

Aurten ere Otegienea auzoko fest-
tak ospatzeko asmoa dago. Ekai-
naren 19, 20, 21 eta 23an izango
dira ekitaldi mordoa, San Joan
suarekin amaiera emanaz. Garai
batean, herriko auzo gehiagotan
festak ospatzen baziren ere, egun
Altamira eta Otegienea dira ohitu-
rarekin jarraitzen duten bakarrak.

Ikastolako jaiak

Ikasturteari amaiera emateko
asmoz Jakintza Ikastolakoe-
k festa erraldoia egingo dute
ekainaren 21ean Beti Alai pi-
lotelekuan. Bertan, bazkaria-
ren aitzakipean, ikasleen eki-
taldiak, errondaila eta bertso-
lariak arituko dira.

Suak

Ohizko suak izango dira
ekainaren 23an eta 28an. Be-
ti bezala, suaren inguruan
dantza saioak egingo dira
gaitzak nolabait uxatzeko as-
moz.

Aitor Calvillo



Kimetzen sari banaketa

Kimetz emakumeen taldeak antolatutako IV. Kontaketa
Lehiaketaren emaitzak atera berriak dira. Irabazleak oraingo-
an kanpoaldekoak izan dira, Iruñeakoa bata eta Bermeokoa
bestea. Gaztelarazko mailan, epaimahaikoen erabakiaren on-
doren, 18 urteko Jose manuel Orejuela naparra izan da lehen
saria eskuratu duena. Bere lana "Dios del futuro 'Hikari'" izan
da. Euskarazko lehen saria, berriaz, 65 urteko Begoña Bilbao
bizkaitarrarentzat izan da, "Nire barruko penak" lanarekin.



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

943 88 11 94

ORDIZIA



MUJKA



BEASAIN 943 88 74 00

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta

Mekanika eta

elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

943 88 17 00 - 943 88 17 04

BEASAIN

IDIAZABAL

San Joan surako guztia prest

Datorren asteartean, ekainak 23, San Joan bezperako suaren inguruko jaia egingo da Idiazabalen. Gazte Asanbladak antolatzen du urtero San Joan suaren inguruan egiten den festa. Antolatzaileek jakinarazi dutenez aurtent nahikoa larri ibili dira jaia antolatzeko gazte gehienak azterketak egiten ari baitira, hori dela eta datozen urteetarako Gazte Asanbladaren asmoa, "jende gehiago inplikatzeko da, horretarako adin ezberdinetako partehartzaileak nahi genituzke, izan ere suaren inguruko antzezpen egokia egin ahal izateko helduak eta haurrak ere izan beharok lirateke tartean".

Aurtent aurreko urteetako antzezpena egingo da. Gaueko 10,30etan piztuko dute San Joan sua, eta orduerd beranduago hasiko dira ekitaldiak. Sorginen konjuroak eta suaren inguruko dantzak ikusteko aukera izango da. Txistulariek, bertsulariek eta txalapartak alaituko dute giroa.

Guztia prestatzeko hurrengo entseia ekainaren



Finalistaren eguna

Gipuzkoako eskolarteko mendi lehiaketari zegokion finalista eguna ospatu zen ekainaren 14ean. Gipuzkoako hainbat herritatik etorritako 700 lagun izan ziren. Mendi sailak prestatutako zirkuitoan itzulia egin ondoren plazan sariak eta diplomak banatu zituzten. Eguerdian herrian geratzea aukeratu zutenek Txomenarenako parkean eta plazako arkupean bazkaldu zuten.

20an, larunbata, izango da eguerdiko 12etan kiroldegian. Sua egiteko papera edo kartoiak dituenak hoiek prestatzeko ere eskatu dute antolatzailere, etxez etxe jasotzera joaten direnean lana ahalik eta azkarren bukatu ahal izateko.

Laburrak

● Oskorri taldeak kontzertua eskainiko du bihar, ekainak 20, Igarondo pilotalekuan. Gaueko 10etan hasita,

Oskorrik 25 urte bete zituen ateratako kantu bildumako doinuak entzuteko aukera izango da. Sarrerak salgai daude tabernetan, helduek 1.000 pezeta ordaindu behar dute eta haurrek 500. Leihatilan ehun pezeta gehiago balioko dute sarrerak.

● Ekainaren 12an zabaldu zituzten igerilekuak. Uda guztian egongo dira zabalik goizeko hamaiketatik arratsaldeko zortzietara. Igerile-

kuan bertan eros daitezke bertara sartzeko abonua eta sarrerak.

● Aitor Aseginolaza herri-tarra, kartzelan hiru hilabete



egin ondoren, ekainaren 5ean utzi zuten libre, milioi bateko fidantza ordainduta. Idiazabalgo Ezker Abertzaleak antolatuta ongo etorria egin zioten ekainaren 13an herriko plazan. Eta ondoren, manifestazioa egin zen herriko kaleetan.

● Zirika Irratiak ekainaren 27an egingo du aurtengo ikasturteko azkeneko saioa. Urriaz geroztik larunbatero egindako irratsaioen laburbilduma entzuteko aukera izango da besteak beste azkeneko saioan.

Xabier Urteaga

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

MEKANOGRAFIA

Beasainen eta Idiazabalen

**UDAKO IKASTARO
INTENTSIBOAK**

MC Akademia

Beasain: 943 88 99 93


Idiazabal: 943 18 71 88



AUBA EGI

Urdaneta, 41
☎-Faxa: 88 95 76
ORDIZIA

- ✳ Tximini eta egurrezko ekonomiak
- ✳ Berogailuak
- ✳ Iturgintza
- ✳ Zeramika erakusketa
- ✳ Bainuko altzariak
- ✳ Erreforma osoak



LAZKAO

VIII. Gerriko Ikerlan Sariketa



Joan den ostiralean, ekainak 12, banatu ziren VIII. Gerriko Ikerlan-Sariketako sariak, Udaletxean egin zen ekitaldian. Ia urteroko zita bihurtu zaigun sariketa honek, beraz, bete du zortzigarren pausoa eta aurrera begira ere beste horrenbeste emateko prest agertu ziren, Udala, Maizpide Euskaltegia eta Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkartea, sariketa honen antolatzaileak, hain zuzen.

Aurten hiru ikerlan izan dira sariketara aurkeztu direnak, 'Otsoa Arin eta Ordiziako doktrina (1713)' Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezola Maizpideko irakasleena, 'Frantzisko Areso Tolosa organojolea eta konposatzailea (1869-1954)' Nerea Muruamendiaren lazkaotarrarena eta 'Goiherri eskualdea; nondik nora' Jabier Otermin urretxarrarena. Lehenengo lan horren egileak diren Maiz-

pideko irakasleak bosgarren urtea dute sariketa honetan parte hartzen dutela eta esan behar da gainera, bost urte horietan sarituak izan direla.

Beraz, aurtengo lehenengo saria 'Otsoa Arin eta Ordiziako doktrina (1713)' lanarentzat izan da, bigarren saria hutsik utzi dutelarik.

Epaileek izan duten lana aipagarria izan da, ikerlan hauek guztiak zuzendu eta epaia ematea ez baita inola ere xamurra. Aurten gainera zabaltasun geografiko bat ematearren eta emakumeen presentzia epaimahaikideen artean nabaria izan zedin, Nafarroa eta Lapurdi aldera jo dute antolatzaileek epaimahaia osatzeko eta gainera hiru kidetatik bat emakumea zen. Zortzigarren edizio honetan epaimahaia osatu dutenak honako hauek izan dira, Maritxu Paulus Basurko abokatu lapurtarra, Patxi Salaberri

hizkuntzalaria eta NUPEko irakaslea, nafarra bera, eta Olivier Chauzu musikari lapurtarra.

Sarituak diren ikerlan guztiak argitaratu egiten dira eta saria ez da jasotzen lana argitaratu bitartean. Ikerlan sarituaren egileak konpromezua hartu dute lanean jarraitzeko, beraien ikerlana argitaratu bitartean eta epaimahaikideak ere laguntzeko konpromezua beregain hartu dute.

Zortzigarren edizio honetan gainera, bigarren saria hutsik gelditu den arren, agian, Nerea Muruamendiaren ikerlana argitaratzea aztertu egingo dute. Olivier Chauzu epaimahaikidearen iritziak akats tekniko batzuk gora behera lan ederra egin omen du Nereak eta horrelako saiakerak nolabaiteko saria merezi dezake.

Informatika ikastaroa

San Benito Ikastolak informatikako klaseak antolatu ditu bertako ikasle, guraso eta oro har, interesa duten guztientzat. Ekainean, uztailean eta irailean barreiatuta, Word, Excell, Access, Windows, Power Point, Explorador eta Autocad 14eko ikastaroak izango dira ikastolan bertan.

Ordutegiari buruz edo eta ikastaroen zenbatekoaz informazio gehiago nahi duenak 943-88 08 00 telefo-

nora deitu dezake edo ikastolako bulegoan bertan galdetu.

Udako kirol iharduerak

Aurtengo udan ere aukera ederra izango dugu lazkaotarrok zenbait kirol egiteko, hala nola, tenisa, eskalada, igeriketa, saskibaloia eta abar. Udaro izaten dugun aukera hau aprobetxatu nahi duenak ekainaren 23a baino lehenago eman beharko du izena Joxemiel Barandiaran kiroldegian.

Kale-antzerkia

Goiherri mailan antolatzen den Kale-antzerkiko III. jardunaldietan, 'Impossible' antzezlan eskeiniko digu Jeff Bradleyk. Ikuskitu dotore hau ekainaren 23an, asteartea, izango da herriko plazan.

Herri Batasunaren 20. urteurrena

Urtemuga esanguratsu hori dela medio Lazkaoko Herri Batasunak herri-afaria antolatu du ekainaren 23rako, San Joan bezpera, bere militante eta jarraitzaile guztiei gonbitea pasatuz. Plazako frontoian egingo den herri-afarian parte hartu nahi duen guztiek ekainaren 21erako, igandea, izena eman beharko dute Antsoategi Herrikoan edo Gerriko tabernan.

Urko Irastorza



VIA

Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 88 86 84 BEASAIN

TXIKI BEGIRISTAIN, OLABERRIAKO FUTBOLARIA, JAPONGO LIGAN: "Nahiago dut azken urteak kanpoan pasatzen"

Aitor 'Txiki' Begiristain futbolaria, Errealetik, Bartzelonatik eta Coruñatik pasatu ondoren, Japongo Urawa Red Diamonds taldean jokatzen ari da azken urtebete honetan. Hemengo aldean, oso lasai bizi omen dira futbolariak, inongo presiorik gabe. Erretiroan pentsatzen hasia da dagoeneko. Japongo esperientzia kontatu digu.

- Japonen nola bizi dute futbola?

- Japonen lehenengo kirola sumoa da, eta ondoren beisbola. Futbol profesionalak 5 urte ditu, futbola oso gaztea da. Hasieran arrakasta handia izan zuen futbola. Atzeritar asko eraman zituzten eta diru asko inbertitu zuten hango enpresek, baina gero beherakada izan zuen. Izan ere, selekzioak galdu egiten zuen gehiengoa, eta jendeak ez du irabazten ez duen kirolik nahi. Ni iaz joan nintzen, eta orduan beherakada zihoan. Baina munduko txapelketarako sailkatu zirenean, berriz ere gora egin zuen futbola.



Jendea zoratuta dago selekzioarekin, ez futbolarekin, lehenengo aldia baita Mundiala jokatzen duela.

Hango Ligak ez dauka arrakastarik. Aurten hala ere, jende gehiago joan izan da ikustera, selekzioak Mundiala jokatu behar duela. Normalean, Japon ez da bigarren txandara sailkatuko, eta orduan ikusi behar harko da futbola zer egiten duen. Deszepzio hori ez dakit nola pasatuko duten.

- Japongo futbolariak nolakoak dira?

- Izugarritzko teknika dute, azkarak dira. Han futbola beti hobby bat izan da, eta ez dira konpetitiboak. Ez dakizu noraino iritsi daitezkeen. Ez dakizu topera ari diren jokatzen den edo hobby bezala, ondo pasatzeko ari diren jokatzen.

Futbolariak, Japongo gizarte osoak bezala, agindu-

takoa egiten dute. Futbola eta bizitza liburuetan agertzen den bezalakoa dela usate dute. Liburuetan ez bada, galdu egiten dira. Ez dute erresponstabilitaterik hartzen.

- Atzeritarak zer moduz sentitu izan zarete?

- Ondo. Dena den, hango izarrak selekzioan daudenak dira, ez atzeritarak. Zaleak hango jokalariekin txoratzen dira. Guretzat, hobeto. Hara joan, futbol lasai batean jokatzen dugu eta bizia ere zoragarria da. Inork ez zaitu ezagutzen, lasai bizi zara, inork ez dizu ezer esaten.

- Oporrak pasatzen ari zarete, orduan.

- Bai. Guretzat bai dela orain, futboleko hobby bezala jokatzea. Ez dago inolako presiorik. Txarrena da, lasaitasun hori lortzeko haraino joan garela.

- Ligan nola zoazte?

- 7. goaz. Irabazteko talderik ez daukagu. Hortxe egoteko, 3.enetik 6.enera bitartean. Gertatzen dena da, liga bakarrik dagoela han, ez dago Uefarik eta horrelakorik, eta lehenengoak bakarrik irabazten du. Lau partidua galduz gero, badakizu ez duzula liga irabaziko eta motibazioa ere galdu egiten da. Konpetibitate gutxi dago. Partidua galduz gero, jarraitzaileek beti txalotzen dute, eta hurrengoan pentsatuz hasten dira, ezer gertatuko ez balitz bezala. Baina futbol profesionala ez da horretarako bakarrik, gorka joatea nahi badute, konpetibitate gehiago sortu behar dute nonbaitetik, eta hori ez dute lortzen.

- Hemengo liga jarraitzen duzu?

- Interneten nago 'engan-txatuta'. Baina ezberdina da erabat, nahiz eta irakurri, ez da hemen egotea bezala. Euskal taldeek egin duten lanetik ea besteek ikasten duten. Azkeneko bi urteetan diru askoko fitxaketa handiak egin dituzte eta ez dira konturatzen bertan, nahiko jende ona dagoela. Athleticek eta Errealak demostratu dute bertako jokalariekin gauzak egin daitezkeela. Ea zerbaiteko balio duen.

- Japondik itzuli eta hemengo talderen batean

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 943 88 04 15
☎ 943 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA

ILARGI

AUTOELEKTRIZITATEA



Bosch eta Veeder-root
takografoen zerbitzu
ofiziala



Jai goriontsuak denoi!

☎ 943 88 32 12

Iurre auzoa OLABERRIA

jokatzeke asmorik ba al duzu?

- Ez, ez dut nahi. Izan ere, azkeneko urteak ez dira onak izaten. Nahiago dut azkeneko urteak kanpoan pasatzea. Jendeak uste du 27 urterekin egin nituen gauzak egin ditzakedala 34rekin, eta hori ez da horrela. Eta ez dut etapa hori hemen pasatu nahi. Coruña bi urte egin nituen eta azkeneko urtean oso gutxi jokatu nuen eta hemengo liga bukatu zela ikusi nuen.

- Erretiroan pentsatzen ari zara orduan.

- Ekainera arte daukat kontratua eta ez dakit han geldituko garen edo beste lekuren batera joango garen, baina beti ere kanpoan. Ni gustura, EEBBetako ligara joango nintzateke. Ezer politik azaltzen ez baizait, etxera. Seguruenik beste urtebetez gehiago jarraituko dut.

- Futbol ibilbideko etapa bakoitzak zer suposatu du zuretzat?

- Errealak: ametsa betetzea izan zen. Jubeniletan hasi nintzen Sansen eta hurrengo urtean lehenengo mailara

igon nintzen, oso azkarra izan zen. Hasieratik gauzak oso ondo joan ziren. Bartzelonan, 7 urte egin nituen, titulu asko irabazi genituen, asko gozatu genuen egiten genuen futbolarekin. Coruña: pasa beharreko etapa. Goian egon eta beheraka hasi nintzenekoa. Urte okerrak izan ziren, gero eta gutxiago jokatzen nuen. Hura gertatuko zela jakin izan banu, Bartzelonatik zuzenean kanpora joango nintzatekeen. Japonen, oso gustora nago, paradisua da hura niretzat. Ustekabean joan nintzen. Tokion bertan bizi izatea, bizi den futbol modua... primeran nago.

- Itzulera, nora izango da?

- Bartzelonara. Urte asko eta onak izan ziren hangoak eta aukera askoz ere gehiago daude, nahiz eta familia eta lagunak onenak hemen eduki. Bartzelonan aukera onak sor litezke lanerako. Futbolaren munduan jarraitzea, entrenatzaile bezala ez, edo komunikabideetan kolaboratzaile bezala aritu nahi nuke futbola utzitakoa.



"Beste planeta bat"

- Japonierarik ikasten ari al zarete?

- Beharra badago, baina oso zaila da. 15 urteko gaztetxo batek ezin omen du egunkari bat irakurri. Orduan, guk urte eta erdi egiteko, desanimatu egiten zara. Esaera eginak eta hitzak ikasten ari gara, baina hizkuntza guztia ikastea izugarria da.

- Japongo bizimoduak nolakoak da?

- Beste mundu bat

da. Hara iristean, beste planeta batean zaudela dirudi. Nahiz eta hiri handietan gure alfabetoa duten letrak daude eta gehiago ulertzen da baina gero beraien alfabetoko marrazkiak hasten direnean, galdu egiten gara. Ingelesezt ez dute gehiegi egiten herrietan. Haien bizimodua ere gogorra da. Norberarena egin eta etxean sartzen dira. Ez dago hemengo harremanik. Hasiera gogorra izan zen. Orain Tokion bizi gara eta hemengo jende gehiago dago. Baina jende hori ere, hango bizi erara ohitua dago. Lana da haien oinarri. Guk, aldiz, goizetan entrenatu eta arratsaldezt libre izaten dugu. Taldeko kideekin ere ez daukagu harreman gehiegirik. Talde barruan zoragarriak dira, baina entrenamenduak bukatzean, bakoitza bere etxera joaten da.

JOSE MARTINEZ ARROYO BULKANIZATUAK

Marratuak, lanta eta pneumatiko salmenta

☎ 943 88 05 66 (Tailerra)

☎ 943 88 16 69

Iurre Auzoa
OLABERRIA



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g

☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

'EL SUEÑO DEL PATO': ANDALUZA, EUSKALDUNA ETA BIZIKLETA

Asier Zinkunegi aktore legorretarra bere lehenengo lan profesionala estreinatzen dator Sevillatik

Sevillako Arte Dramatikoen eskolan graduatu berria da Asier Zinkunegi legorretarra. Antonio Daniel Garcia sevillarrarekin batera Miedomedá teatro konpainia sortu eta 'El Sueño del Pato' lana estreinatuko dute ekainaren 26an, Urrietako Sarobe antzokian, 20:30ean. Dohainik izango da. Legorretarra, bere-berea duen lanaren estreinurako ilusio handiz etorri da Sevillatik.

"Aktore gazteek bi aukera daukate: etxean gelditzea telefonoak noiz joko zain eta bestea, gu saiatzen ari garena, geure proiektu edo amets bat aurrera eramaten saiatzea. Lehenengo eroagoa da baina 15 urtez egon zaitezke ezertxo ere egin gabe. Bigarrena oso zaila da, beldur handia pasatzen da. Azken finean obra bat sortzeko, konturatzen zara enpresa bat ari zarela sortzen eta gu ez gara enpresarioak", dio Asier Zinkunegi.

Erronka zail horri heldu dio Asierrek, Antonio Daniel Garcia lagun duela. Bi



Asier Zinkunegi legorretarra eta Antonio Daniel Garcia sevillarra.

herri eta bi kultura ezberdin oinarri hartuta, moldatu dute beraien lehen lan profesionala, behin Sevillako Arte Dramatikoen eskolako ikasketak bukatuta: 'El sueño del pato'. Bi pertsonaien arteko harremana kontatzen da bertan. Biak ere, oso pertsonaia ezberdinak eta konplexuak. Bata, Sevillako kioskerio miope eta atzeratu mentala. Bestea, euskalduna, puteroa. Bien artean bidaia egingo dute "inora ezean" bizikleta batean.

Elkarrizketetan inkomunikazioa sortuko da, askotan, hizkuntzan oinarritutakoa. Asierrek zati bat euskaraz egingo du eta Antoniok andaluzez. Elkarrizketetan jendearen irriparra aurkitzen da. Umore beltza asko sartzen dute.

Obraren lehen zatian, erabat errealista, bi pertsonaien aurkezpena egiten da,

monologoaren bitartez. "Hasierako partean, testuak gu-reak dira, eta bigarren zatian, autore alemaniar bate-nak, Karl Valentinena. Gure zatian testuen hizkera oso herrikoia da. Bigarren zatian autore honek, surrealismoa eta landu izan ditu, eta hitz joko asko. Orduan nola molda daitezkeen bi pertsonaia hauek hizkera hauetara", argitu du Asierrek.

Dirulaguntzarik ez

Inongo dirulaguntzarik ez dute jaso obra hau moldatzeko. Ez erakundeen aldetik, ez eskolaren aldetik ere. Dena beraien autogestiotik atera dute, tabernetan eta herrietan aktuatuz. "Kartelak eta esku programak Sevillako hainbat tabernarik emandako laguntzarekin atera ditugu. Lehenengo atea eskolan bertan ixten

dute. Eta hori gogorra da. Baina ilusioa eta gogoia dagoen, nola edo hala ateratzen da". Antzerkitik bizi nahi du Asierrek. Hori bai, ez du bazterten telebistan aritzea. "Antzerkitik bakarrik bizitzea oso-oso zaila dago, ia ezinezkoa da, ez badituzu klaseak ematen edo. Nire ilusioa hori da".

Sevillako Arte Dramatikoen eskolan egin ditu Asierrek azken 4 urteak. Tolosan eta Errenterian oinarrituko ikasketak egin eta Sevillara joan zen. Tartean, Goenkalen urtebete egin zuen. Kanpoan formaziorako aukera hobea dagoen bezala, Andaluzian behintzat, antzerkia ikusteko tradizio handia omen dago.

Estreinua

Urrietako Sarobe aretoan estreinatuko da eta gero Sevillan egingo dute estreinua. Hortik aurrera, saltzeari ekingo diote. "Itxaron egin beharko dugu. Lanik gehiena egingo dago. Guk gure esku zeuden osagai guztiak jarri ditugu. Orain gure esku ez dagoen osagai bat falta zaigu, zortea". Udazkenean, ziurrenik, Legorretako kultur astean, funtzio bat eskainiko dute, ilusio handiz gainera, "Euskal Herrian antzerkirik egiten ez dudala 5 urte dira".

IBAI-ONDO



**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g

943 88 05 43 BEASAIN



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 943 88 98 44 BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 943 889390 BEASAIN



1957ko Olaberriko ikasleak

Mari Karmen Alonso maistrak utzi digu argazkia. 1957an ateratakoa da. Egun honi buruzko xehetasunik ez dago, baina izen-abizen guztiak lortu dituzte.

Goiko lerroan, ezkerretik eskubira: Joakina Arrieta, Ana Mari Mujika, Lurdes Estonsoro, Belen Goitia, Mari Koro Goiburu, Mari Karmen Alonso (maistra), Mari Karmen Agirre, Maribi Lasa, Pakita Goikoetxea, Mertxe Auzmendi eta Juanita Aranburu.

Erdiko lerroan: Isabel Arrieta, Rosa Mari Lasa, Pakita Mujika, Antonia Mujika, Kasimira Goitia, Mari Isabel Agirre, Maritxu Ugartemendia, Joxepa Goitia eta Mari Tere Barandiaran.

Aurreko lerroan: Pepita Zurutuza, Joxepi Arratibel, Maria Jesus Zurutuza, Mari Tere Azurmendi, Mari Isabel Munduate, Juanita Barandiaran eta Mari Karmen Urkiola.

... zure esku dago

"Buelbaka - Buelbaka Birziklatuz"

Datozen hilabeteetan honelako 210 edukinontzi jarriko ditugu Goierri eta Urola Garaia eskualdeetan. Sar itzazu bertan plastikozko eta metalezko ontziak eta Tetra Brikak, ondoren sailkatu eta birziklatu ahal izateko.

Gutxitu hondakinak,
berriz erabili eta birzikla itzazu

Guztion mesedetan izango da



Gipuzkoako Foru Aldundia

Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentua



SASIETA
MANKOMUNITATEA



Antzizar
kiroldegia:

UDAKO AUKERARIK HOBERENA

BEASAÏNEN AURKITUKO DUZU



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gastoria eta Kirol Departamentua
Departamento de Juventud y Deportes



BEASAINGO UDALA



ANTZIZAR
KIROLDEGIA



KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA
Instituto municipal del deporte